eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# Eskola eta familien arteko harremana berreraikitzen etxekotze prozesuan

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Haur Hezkuntzako Gradua


EGILEA: Martin Goikoetxea, Maialen.

TUTOREA: Antonio-Agirre, Iratxe.


**2022-2023**

## Laburpena

Egun Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko eskolatze-tasa oso altua da Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Haurrak haien hezkuntza ibilbidean hasten dira etapa honetan, familiekin batera ikastetxean haien lehen urratsak aurrera eramanez. Beraz, ikerketa-lan honen bidez etxekotze prozesuan zehar eskola eta familien arteko harremana aztertu da. Hau guztia ahalbideratzeko, lehen-lehenik, etxekotzearen inguruko aurrekari bibliografikoak bildu dira, egokitzapen aldiaren bilakaera, etxekotze prozesuaren kontzeptualizazioa, prozesuaren eragina, helduaren garrantzia eta prozesuaren antolakuntza ezagutaraziz. Halaber, zazpi elkarrizketa sakon burutu dira, zehazki lau hezitzaile eta hiru gurasoei. Modu honetara, parte-hartzaileen errealitatea ezagutu da, etxekotzearen une ezberdinak identifikatuz eta hezitzaile zein gurasoak prozesuan aurkitzen dituzten mugak nabarmenduz. Azkenik, ondorioetan oinarriturik, infografia bat eskainiko da, prozesuan parte-hartzen duten eragileei zuzendurik dagoena.



*Hitz-gakoak:* etxekotzea, hezitzaileak, gurasoak, harremana, Haur Hezkuntza



## Resumen

Actualmente la tasa de escolarización en primer ciclo de Educación Infantil es muy alta en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Los infantes se inician en esta etapa en su itinerario educativo, dando sus primeros pasos en el centro con las familias. Por tanto, mediante este estudio de investigación se ha analizado la relación entre la escuela y las familias durante el proceso de tiempo de acogida. Para ello, en primer lugar, se recogen los antecedentes bibliográficos relativos al tiempo de acogida, dando a conocer la evolución del periodo de adaptación, la conceptualización del proceso de tiempo de acogida, el impacto del proceso, la importancia del adulto y la organización del proceso. Asimismo, se han realizado siete entrevistas en profundidad, concretamente a cuatro educadores y tres padres. De esta forma, se ha conocido la realidad de los partícipes, identificando los diferentes momentos del tiempo de acogida y resaltando las limitaciones que encuentran tanto el educador como los padres en dicho proceso. Finalmente, en base a las conclusiones, se ofrecerá una infografía dirigida a los agentes participantes en el proceso.



*Palabras clave:* tiempo de acogida, educadores, padres, relación, Educación Infantil



## Abstract

Nowadays, the enrolment rate in the first cycle of Early Childhood Education is remarkably high in the Basque Country. Infants begin this stage in their educational itinerary, taking their first steps at the centre with their families. Therefore, this research has analysed the relationship between school and families during the process of reception time. For this purpose, first of all, the bibliographic background on the reception time is collected, making known the evolution of the adaptation period, the conceptualization of the reception time process, the impact of the process, the importance of the adult and the organisation of the process. Seven in-depth interviews have also been conducted with four educators and three parents. In this way, the reality of the participants´ knowledge is known, identifying the different moments of the reception time and highlighting the limitations that are presented in both the educator and the parents encounter in this process. Finally, based on the conclusions, an infographic will be offered to the involved in the process.



*Keywords:* reception time, educators, parents, relationship, Early Childhood Education

## Aurkibidea


**Sarrera** **6**
**1. Marko teorikoa** **7**
1.1 Egokitzapen aldiko bilakaera mendebaldeko kulturan zehar 7
1.2 Etxekotze prozesuaren kontzeptualizazioa 9
1.3 Etxekotze prozesuaren eragina 10
1.4 Helduaren garrantzia prozesuan 12
1.4.1 Hezitzailea 12
1.4.2 Familia 14
1.5 Etxekotze prozesuaren antolakuntza Haur Hezkuntzan 15
**2. Metodoa** **17**
2.1 Diseinua 17
2.2 Helburuak 18
2.3 Parte-hartzaileak 18
2.4 Tresnak 19
2.5 Prozedura eta analisia 19
**3. Emaitzak** **20**
3.1 Kontzeptualizazioa 20
3.2 Prozesuan sortarrazten diren emozioak 22
3.3 Lehenengo harremana hezitzaile-guraso 23
3.4 Lehenengo eskola eguneko harrera 24
3.5 Banantzea 26
3.6 Agurrak 27
3.7 Harreman afektibo berria eraikiz 28
3.8 Haur eta familien erritmoa 29
3.9 Etxekotzearen amaiera 30
3.10 Familien etxekozea 30
3.11 Mugak 31
3.12 Prozesuaren balorazioa 32
**4. Ondorioak** **33**
4.1. Lortutako emaitz nagusien balorazioa 33
4.2. Lanaren mugak eta etorkizunerako hobekuntzak 36
4.3. Lanaren ekarpena hezkuntza arloan 37
**Erreferentziak** **37**
**Eranskinak** **40**

## Sarrera

Nahiz eta azken hamarkadetan jaiotza-tasak behera egin duen, egun Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan eskolatze-tasa altua da. Hori horrela izanik, familiak zein haurrak ikastetxean egiten dituzten lehen urrats horiek, etxekotzea deritzon prozesuan biltzen dira. Denboran zehar prozesu honekiko ikuspegia zeharo aldatu da, egokitzapen-aldia gisa izendatzetik, etxekotzea kontzeptura igaro baita.

Egoera honetan, prozesuan parte-hartzen duten eragileen ahotsak aintzat izan da, kontzeptuaren eraldaketa beharrezkoa dela ikusi da. Luzaroan erabili den egokitzapen-aldia kontzeptuaren ikuspegitik, bai familiak eta bai haurrak dira ikastetxera moldatu behar direnak. Ahatik, etxekotzeak haurrak, familiak, hezitzaileak zein ikastetxeko gainerako langileak etxean bezala sentiaraztea dakar. Halaber, prozesuaren eragile guztien arteko elkarlana sustatzea du helburu, ziurtasuna eta konfiantza oinarri dituen eremu bat eraikiz.

Betidanik prozesuan arreta haurraren bizipenak ikertzean jarri bada ere, etxekotzean parte-hartzen duten gainontzeko indibiduoengan sortzen diren emozioak ezagutzea ezinbestekoa da. Arestian esan den moduan, etxekotzeak prozesuan parte-hartzen duten eragile guztiak hartzen baititu bere baitan.

Hau dela bide, lehenengo praktikaldietan prozesua bizitzeko aukera izan nuenez, ur hauetan murgiltzeko beharra sentitu dut. Izan ere, beste errealitate bat ezagutzea premiazkoa da, kasu honetan hezitzaile eta gurasoena izan dena. Guztiok bizi izan dugu prozesu hau, ikuspegi ezberdinetatik. Hain zuzen ere, egokitzapen-aldi gisa oroitzen dut nire eskolatze prozesu hori, egokitzapena baitzen hura.

Hori dela eta, guzti honi erantzuteko asmoz, ikerketa lan honek zenbait atal ezberdin ditu. Lehenik eta behin, marko teorikoan etxekotzearen inguruko aurrekari bibliografikoak bildu dira. Jarraian, metodoan lanaren helburu nagusia euskarri izanik, aukeratu den diseinua azaldu da, ikerketa narratiboa izan dena. Ildo beretik, atal honetan lagina, tresnak eta prozedurak deskribatuko dira. Honen ondoren, kategorien araberako emaitzak aurkeztuko dira. Azkenik, ondorio nabarmenak adieraziko dira, emaitzetan oinarrituz eta marko teorikoarekin alderatuz. Honekin batera, ondorioetan ikerketa lan honen mugak identifikatuko dira, hobekuntzarako proposamenak eginez.

# 1. Marko teorikoa

## 1.1 Egokitzapen aldiko bilakaera mendebaldeko kulturan zehar

Jakina denez, historian zehar aldaketa handiak izan dira gure gizartean, hain zuzen ere, aldaketa horiek eragin zuzena izan dute familian eta eskolan. Egun, familia asko aldatu da emakumea lan munduan sartu delako. Hori dela eta, gurasoen rolak ere aldatu dira, biek lan egiten duten familiek banatu egin behar dituztelako etxeko lanak eta seme-alaben zaintza. Gainera, gero eta guraso bakarreko familia gehiago daude, non aitak edo amak bien rolak betetzen dituzten. Inguruabar horiek eta beste batzuk direla-eta, aldatu egin da eskolarekiko eta irakaslearekiko harremana. Beraz, haurren eskolatzea lehenago egiten da, eta horrek esan nahi du haurren lehen sozializazio-prozesuan eskolak askoz protagonismo handiagoa duela (Castro, 2009).

Haur hezkuntzako zentroen jatorriak, arrazoi ekonomiko eta sozialei hain lotuta zegoenez, gurasoen artean zalantza eta erruaren kontzientzia ere areagotzen zituen. Izan ere, benetako *antsietate kulturala* egon da hain goiz bereizteak izan ditzakeen ondorio negatiboei dagokienez. Hala eta guztiz ere, adin txikiko haurrak eskoletan sartzea errealitate bat da gure testuinguruan, haurrak 3 urtetik aurrera edo are lehenago eskolara joatea egunerokotasunaren parte baita. Hala ere, haurrek eta haien familiek beldurrak eta kezkak azaleratzen dituzte egoera honen aurrean. Eskolako lehen egunetan, kezkak areagotu egiten dira, haurraren eta gurasoen arteko lehen bereizketetako bat delako, eta horrek segurtasun afektibo-emozionalerako, gizarte-harremanak ezartzeko eta etorkizuneko ikaskuntzak finkatzeko bidea ematen du (Iglesias, 2016; Sánchez-López eta Cantero, 2007).

Ildo beretik, Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) eskolatzea esponentzialki hazi da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) azken 10 urteetan. 0-3 Haur Hezkuntza orokortu egin da EAEn 2003an Haurreskolak Partzuergoa sortu zenetik. Erakunde publiko horren funtzioa 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako haur-eskolen hezkuntza- eta laguntza-kudeaketa da. Egia da, azken hamarkan EAE-n jaiotza-tasak behera egin duela. Hain zuzen ere, 2010. urtean 21159 haur jaio ziren Euskadin eta berriz, 2020. urtean 14739 haur. Nahiz eta jaiotza-tasak behera egin, EAE-ko eskolatze-tasa altua da. Izan ere, 2020-21 ikasturtean Haur Hezkuntzan bi urteko haurren %90,8 eta hiru urteko haurren %97,9 eskolatu ziren (Eustat, 2022; Herrán et al., 2014).

Modu berean, lehen aipatu bezala, azken urteotan aldaketa nabarmena gertatu da gizartean, aldaketa horrek familiari eragiten dioten hainbat eremu hartzen baititu barne, hala nola emakumea lan-munduan sartzea. Zalantzarik gabe, horrek eragina du haurren hezkuntzan eta ondorioz, eskolak zentzu horretan duen rol-ean. (Rodríguez, 2009).

Argi eta garbi dago beraz, eskolan sartzea aldaketa garrantzitsua dela haurraren bizitzan, eta haurra seguru eta babestuta dagoen ingurunetik askoz ere ingurune zabalago batera joatea eskatzen du, non harremanak ezberdinak baitira eta haurrarentzat ezezaguna baita. Ondorioz, garrantzitsutzat jotzen da egokitzapen-aldia; hain zuzen ere, prozesu horren araberakoa izango da etorkizunean izango duen jarrera eskola eta ikaskuntzan (González, 2009).

Hori dela eta, haurra da egokitzapen-aldiaren protagonista nagusia. Oso une delikatua baita, eta hainbat barne-aldaketa izaten ditu eguneroko ohituren aldaketetara egokitzeko. Horretarako, laguntza eta ulermena behar ditu. Hain zuzen ere, egokitzapen-aldia da haurrak, sentimenduen ikuspegitik, ingurune berri baten onarpena sortzen eta prestatzen duen prozesua: eskola. Haurra eskolara sartzen denean, bereizketa handia izaten du, eta hautsi egiten da atxikimendu-irudiarekiko lotura afektibo hori, eta gatazka sortzen da. Gatazka hori konpontzeko modua, haurrak lotura horren haustura zorionez berdintzeko erabiltzen duen denbora, egokitzapen-aldia deitzen dioguna da. Eskolatze osoan zehar eskolarekiko, harreman sozialekiko eta ikaskuntzekiko duen jarrera prozesu hori, positiboa edo negatiboa, nola asimilatu araberakoa izango da. Hortaz, hezitzaileen eta gurasoen ardura da egokitzapen-aldi egokia antolatzea (González, 2009; Iglesias, 2016).

Denboraren ikuspegiari dagokioenean, berriz, haurrak modu emozional, sozial eta eskolan egoki egoteko behar duten egun, aste edo hilabeteak dira. Zentzu zabalagoan, denbora horretan ikastetxetik kanpo eta bereziki, familiarekin egin ditzakeen aldaketez ere hitz egin daiteke. Haurrak egokitu egin dira emozionalki lasai daudenean, ikaskideekin harreman sozial onak dituztenean eta proposatzen zaizkien jardueretan egoki parte hartzen dutenean (Sánchez-López eta Cantero, 2007).

Horretarako, haurrak bere denbora zehatza behar du, baina aintzat izan behar da haur guztiak ez direla berdinak eta, beraz, batzuen eta besteen egokitzapena ere ezberdina izango dela. Hain zuzen ere, ikasle bakoitzak sinesmen, esperientzia eta aurretiko ideia ezberdinak ditu abiapuntu, heldutasun-maila ezberdina eta trebetasun sozial eta emozionaleko maila ezberdinak. Horrek guztiak denbora eskatzen du, eta haur bakoitzaren

erritmo pertsonaletara egokitzen saiatzea ezinbestekoa da, haur bakoitzak norbere kabuz egin behar duen prozesua baita. Ez hori bakarrik, prozesu horretan zehar hainbat fasetatik igaro behar da. Fase horietan, zenbait jarduera egin behar dira familiekin, ikasleekin eta hezitzaileekin eta era berean, haurrak espazio berrietara, helduen erreferentziazko irudi berrietara eta familiaren banaketara egokitu behar dira, gutxienez aldi baterako eta onartu egin behar dira (Pérez, 2010).

Terminologia argituz, kontuan izan behar da egokitzapen-aldiaz ari garenean lehen eskolatze horretan inplikatuta dauden alderdi, faktore eta eragile guztiez ari garela: irakasleek, familiek eta haurrek hartutako erabakiez, sarrera hori egokiena izan dadin; ikasleen garapen-mailaz; bakoitzaren hazkunde- eta ikaskuntza-erritmoez, besteak beste (Iglesias, 2016) .

### 1.2 Etxekotze prozesuaren kontzeptualizazioa

Luzaroan egokitzapen aldia terminoa erabili izan da haurrak ikastetxean egiten dituen lehen urratsetan abian jartzen den prozesuari erreferentzi egiteko. Prozesu honen helburua argi izatea funtsezkoa da. Egokitzapen-aldia terminoaren erabilerak, ikastetxera egokitu behar direnak haurra eta familia izatera dakar. Beraz, haurra zein familia eskolara moldatzea edo haiek ikastetxeko espazioa eremu seguru gisa sentiaraztea izan beharko litzateke prozesuaren helburua? Ez lirateke haurrak eta haien familiak etxean bezala sentitu beharko ikastetxean?

Etxekotze prozesuaren kontzeptualizazioa, *etxekotu* hitzetik eratorria da. Euskaltzaindiaren hiztegiaren (2023) arabera, etxekotu hitzak etxeko bihurtzea esanahi du. Berriz, egokitzapen aldia egokitu hitzetik eratorria da, helburu edo erabilera baterako egoki egin edo bihurtu edota moldatu esanahai duena.

Gasteizko Udalaren Haur-eskolaren sarean burututako ikerketa batean, kontzeptualizazio klasikotik abiatuz, kontzeptualizazio humanizatuago batera igaro ziren, non haurren zein familien sufrimendua balioesten den. Izan ere, aldaketa kontzeptualek egokitzapenaren kontzeptuarekin berarekin eta haren harrerarekin dute zerikusia, baita hezitzaileen, denboren eta espazioen antolaketarekin ere. Modu honetara, Haur Hezkuntzako literaturan eta diskurtsoetan hain zabalduta dagoen termino klasikoa gainditu da, eta aldatu egiten da nor egokitzen den: haurrak eta familiak eskolara, edo eskola egokitzen eta hartzen dena da (Vizcarra et al., 2021).

Hain zuzen ere, prozesu honetan haur-eskolara sartzeko une zail eta labain horretan parte hartzen duten subjektu guztiak izan behar dira aintzat, besteak beste haurrak, familiak, erreferentziako hezitzaileak eta eskolako gainerako helduak. Haurrak eta gurasoak etxekotzeko prozesuan, ezinbestekoa da eskolaren eta familiaren artean alde biko hartu-emana ezartzea (Febrer eta Jansá, 2011).

Ildo beretik, lotura afektibo berriak sortzea funtsezko kontzeptuetako bat da etxekotzearen kontzeptualizazioan. Hain zuzen ere, prozesu horren helburua irakasleen eta haurren arteko lotura afektibo berriak sortzea da. Ez hori bakarrik, afektibitatetik pixka bat harago joan nahian, harrerak eskola jolasaren, aurkikuntzaren eta harremanaren testuinguru gisa bizitzearekin ere zerikusia duela aldarrikatzen da (Vizcarra et al., 2021).

Haurrak eta haien familiak egokitzeko prozesuan, askotan baliteke eurek moldatu behar izatea eskolara, erritmoetara eta eskolan lan egiten duten profesionaletara. Horrenbestez, eskolako antolamenduak bultzatuta, ordutegiak homogeneizatzera jotzen da batzuetan, haur guztiei aldi berean arreta eman ahal izateko (Febrer eta Jansá, 2011).

### 1.3 Etxekotze prozesuaren eragina

Zalantzarik gabe, haurraren garapenean 0-3 urteko adin kritikoa du. Izan ere, etapa horretan infanteak bere garun-ahalmena proportzio handiagoan eratu eta garatzen du. Haurrek plastikotasun handiagoa dute, eta azkar eta zailtasunik gabe ikasten dute aldi horretan. Atxikimendua da jaioberriak gurasoekin edo zaintzaile nagusi batekin duen lehen harremana, urte gutxiko haurraren seinaleekiko konstantea eta harkorra dena. Bizitzako harreman afektibo guztien oinarri den prozesua da. Pertsona esanguratsuekiko atxikimenduak bizitza osoan laguntzen digu, guraso, irakasle edo pertsona horiekin lotura iraunkorrak eratu baititugu (Moneta, 2014).

Argi dago, familia gizartearen erakunde nagusia dela, lehenengo haurtzaroan haurraren garapena hezi eta bultzatzen duena. Hau da, familia da haurrek jaiotzean izaten duten harreman-egitura hori; gizarte-leku bat baino gehiago, balioen, errespetuaren eta konfiantzaren iturri adierazgarria da, eta bertan irakasten da nork bere burua ezagutzea; familian garatzen dira zenbait trebetasun, eta horiek oso lagungarriak izango dira haurrek gizartean elkarreragina izan dezaten eta beren nortasunaren partaide izan daitezen (Marín et al., 2019).

Hain zuzen ere, atxikimendua haurraren eta beste pertsona baten artean garatzen den lotura emozional bereziari deritzo, denboran zehar mantentzen dena, bien arteko interakzioari esker garatzen dena, eta elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasuna sortzen dituena. Atxikimendua bizitzaren lehenengo urtean zehar garatzen da, eta haurraren eta haren zaintzaileen arteko harreman moten menpe egongo da (Jauregizar, 2013).

Hari berari jarraituz, haurrentzat haur eskolara sartzea oso une garrantzitsua da haien bizitzetan; izan ere, haur gehienentzat, eskolatzen hastea ingurunetik lehen aldiz bereiztea da. Haur Hezkuntzarako urratsa oso etapa garrantzitsua da, non haurrek ingurune berri bat deskubritzen duten, beren familia-girotik eta ohituta dauden girotik at (Domingo, 2014).

Atxikimendu-irudiekin lotura sendo eta seguruak garatzen baditugu, badirudi horrek seguru sentiarazten gaituela pertsona hori hurbil dugunean, baina harengandik banatzean larritasuna sortzen da. Hain zuzen ere, atxikimendu-irudia desagertzen denean, haurra larritu egiten da: negar eginez, garrasi eginez, adibidez, atxikimendu-irudi hori berreskuratzeko asmoz (Jauregizar, 2013).

Lehen esan bezala, haurra eskolan sartzeak aldaketa handia dakar gure bizitzan, haurra seguru eta babestuta dagoen familia-ingurunetik irtetea dakar, ingurune askoz zabalago batera, non harremanak desberdinak diren eta berarentzat ezezaguna den zerbait bezala aurkezten den. Eskolatze osoan zehar eskolarekiko, harreman sozialekiko eta ikaskuntzekiko duen jarrera prozesu hori, positiboa edo negatiboa, nola asimilatu araberakoa izango da. Hortaz, hezitzaileen eta gurasoen ardura da prozesu horren planteamendu egokia antolatzea (León, 2009).

Modu honetara, fase hau haurraren garapenaren funtsezko zati gisa hartzen da, non loturak sortuko diren eta etorkizunean hezkuntza-sisteman zehar egingo duen ibilbideari lagunduko dion. Horregatik eta inplikazio emozionalagatik, ezinbestekoa da aldez aurreko plangintza egitea. Lehen esan bezala, eskolara sartzea une kritikotzat jo daiteke txikienen garapen integralean, eta horregatik, funtsezkoa da haien plangintza (Iglesias, 2016).

Beraz, haur eskola batean sartzea oso urrats garrantzitsua da haurrarentzat zein familiarentzat. Hori dela eta, haurraren une delikatu horrek bi prozesu lotzen ditu aldi berean. Alde batetik, aldi baterako lehen bereizketa fisiko esanguratsua eta gurasoen eta seme-alaben arteko urruntze emozionala. Bestalde, haurraren eta gurasoen eta

hezitzailearen arteko harreman afektibo berria eraikitzean datza. Laburbilduz, prozesu konplexua da guztientzat, ez bakarrik haurrentzat, baita haien familientzat, hezitzaileentzat eta eskolarentzat ere. Haurra ez da seguru sentitzen beretzat ezezaguna den egoera batean. Gurasoek, ezjakintasun horretatik ere, segurtasun falta eta tristura sentitzen dute, eta batzuetan erruaren sentimendua agertzen da (Zazu, 2017).

### 1.4 Helduaren garrantzia prozesuan

Familiak eta eskolak bat egin behar dute ikasleen hezkuntzan eta ingurune ezberdinetara egokitzean, eta, horretarako, inplikatutako guztiak kontuan hartuko dituen plangintza bat behar da (Sanchéz, 2007). Hori horrela delarik, jarraian hezitzaileon eta familiaren garrantzia agerian utziko da.

#### *1.4.1 Hezitzailea*

Ezinbestekoa da hezitzaileak prozesuak dituen berezitasunak ezagutzea, nola eragiten duen prozesu horrek haurraren identitatea eraikitzeko alderdi esanguratsuenetan. Gainera, zaintzan oinarritutako harreman profesionaletik eta denbora bakoitzeko erritmoen errespetutik jasotzen duen ezagutza berria; eta hortik aurrera, irakasleak jarrera bat hartu beharko du bere gain. Irakasleak, egokitze-prozesuan, oso rol garrantzitsua betetzen du, eta, horretarako, trebetasunak eta trebetasunak behar ditu ikasleen hezkuntza-arloko nortasuna prestatzeko (Acosta et al., 2020).

Haur gehienak, antsietate handiz bizi dute familiarengandik bereizteko unea. Beraz, irakasleak haurraren lekuan jarri behar du eta jarri behar du bere negarrak, pasibotasuna eta beldurra erantzun logikoak direla ulertzeko, erronka berriari aurre egiteko. Hezitzaileak eta taldea, oro har, haurren talde berrira, beren erritmo, ohitura eta berezitasunetara ere egokitzen dira. Haur bakoitzarengana bakarka hurbiltzea ezinbestekoa izango da egokitzapena errazteko. Irakaslearen beste eginkizunetako bat gurasoei lasaitasuna eta segurtasuna ematea da. Hezitzaile-taldeak antolatzea eta familiak prozesuan eta eskolako bizitzan parte hartze orokorra, funtsezkoa da (González,2009).

Hezitzaile gisa, familiek eskolan parte hartzea erraztu behar dugu, parte hartzeko modu desberdinak egokituz eta malgutuz, jarraitutasun hori egia izan dadin. Familiek ikastetxean parte hartzea eta hezkuntza-taldearekin partekatutako irizpideak bateratzea funtsezkoak dira. Haurraren aukerak behar bezala garatzeko, komunikazio eta koordinazio

bide errazak ezarri beharko dira, hezkuntza prozesuaren (familia eta eskola) koherentzia bermatzeko (Sanchéz, 2007).

Hezitzailearekiko lotura bana-banako arreta-uneetan eraiki ohi da. Garrantzitsua da, beraz, haurrekiko une gertukoenak aurretiaz prestatzea eta une horiek ondo zaintzea. Ordura arte, familia bakoitzak nork bere modura zaindu du haurra. Familiek etxean zer ohitura dituzten jakin behar dugu, eskolan ere ohitura horiek errespetatzen saiatzeko. Egon da gerora ere eskolaren hezkuntza-proiektuarekin bat datozen bestelako arreta-eredu batzuk barneratzen joateko aukera, betiere begirune handiz eta familiarekin aurretiaz hitzartuta (Febrer eta Jansá, 2011).

Irakasleek lotura afektibo hori sortzeko premisari jarraitu behar diote, estilo seguruari jarraituz, sentsibilitatea erakutsiz eta haurraren behar emozionalei erantzun egokia emanez, harekin lehen afektibitate-harremanak bilatuz. Ildo horretatik, esperientzia berrietarako giro egokia eta segurua eskainiko zaio haurrari. Ez hori bakarrik, irakasleek haurraren atxikimendu identifikaziorako balio beharko dute, haren egoera soziala eta emozionala ulertzeko, eta eskoletan arriskua duten haurrak identifikatzeko. Identifikazio horri esker, jarduerak eta portaera errazago egokitzen dira eskolako lehen egunetan, haurra helduengandik hurbil egoteko prozesuan laguntzeko (Iglesias, 2016).

Zazu-ren (2017) arabera, harreman afektibo hori, bi aldeen ekarpenei eta harreman egonkor eta ordenatuari esker sortzen da. Hain zuzen ere, harrera-denbora hori zeharkako hiru ardatzetan oinarritzen da: isiltasuna, begirada eta gorputz-kontaktua:

- Isiltasuna ezinbestekoa da, hitza ez kutsatzeko giro hori sortu eta mantentzea funtsezkoa da, sortzen diren trukeak eta prozesuak entzuteko, behatzeko, esku hartzeko eta emozionalki eskuragarri egoteko.
- Bestalde, ikasgelan egoteko dugun moduak, haurraren parean, aukera ematen du lehen kontaktu hori begiradaren bidez agertzeko: begiratu, aurkitu eta ezagutu egiten dugu. Izan ere, arreta eta interesa adierazten duten begiradak dira, haurrari erakusten dio irakaslearentzat zeinen garrantzitsua den haurra, eta irakaslea bere emozioei adi eta erantzuteko prest dagoela.
- Haurrak helduarekin duen harremanaren lorpen horien ondoren, haurra hurbiltzen da eta lehenengo gorputz-ukimena egiten du, keinuak izan ohi direnak. Lehenengo gorputz-harreman horiei esker, gurasoak eskolatik ateratzen direnean, horrek eragiten dien emozioaren aurrean, haurrak hartu eta besoetan eduki ahal izango

dituzte. Beti ere errespetuz, haiek onartzea eta harrera egin nahi izatea, inbaditu gabe.

*1.4.2 Familia*

Gurasoen eginkizuna funtsezkoa da. Familiek eragin handia dute une honetan, semearen edota alabaren egokitzapena etorri egiten baita neurri handi batean, banantzea beren gain hartzeko moduaren arabera zehazten da: beren beldurrak, itxaropenak, antsietatea, hartu duten erabakian duten segurtasuna edo segurtasunik eza eta aukeratutako ikastetxean eta semearen aukeretan duten konfiantza. Sentimendu horiek gurasoek transmiti ditzakete gehiegizko kezkaren, larritasunaren eta abarren adierazpenen bidez. Adierazpen horiek seme-alabek hautematen dituzte eta modu negatiboan erantzuten diete (González, 2009).

Familiek eskolari eta hezitzaileei buruz duten iritziak baldintzatuko baitu seme-alaben egokitzapena. Beraz, gurasoen pentsamenduak, beldurrak, larritasunak, ardurak… ezagutzea garrantzitsua izango da. Horretarako, prozesua hasi aurretik gurasoekin bilera bat egitea komenigarria da, eta, behin haurra eskolan hasita, gurasoekin komunikazio egokia izaten saiatu behar da. Gurasoei ondo azaldu beharko zaie trantsizioa nola egingo den eskolan, eta horiek haren garrantzia ulertzea funtsezkoa da (Ibañez, 2003).

Hezkuntza eta sozializazio eragile gisa, oso garrantzitsua da familiak eta eskolak elkarrekin konektatzea, elkarren arteko baliabideak eta mugak ezagutzeko. Inplikazio hori garrantzitsua da, funtsezkoa baita bi elementu horiek lotura-puntu bat dutela bizitzea, harreman onak, adeitsuak eta konstruktiboak izatea, eta, gainera, bien jarduera koordinatua konbinazio ezin hobea delako haurren garapen eta ikaskuntza osorako. Parte-hartzea banakakoa zein taldekoa da, eta hezkuntza-komunitateko kide aktiboa da, banakako parte-hartzea taldean integratuta egon behar da (Castro, 2009).

Familia-esparrua, sozializazio-agente nagusia den aldetik, funtsezkoa da, eta, beraz, ahalbidetzen edo eragozten du; beraz, bultzatu edo zaildu egiten du, baina are garrantzitsuagoa da egoera horretan garatzen diren elkarrekintzen edukia; izan ere, elkarreragin horietatik abiatuta, inguruneak subjektuan eragingo du. Horregatik, lehenik eta behin, azpimarratuko dugu familiak eragina duela haurra haur-eskolara ahalik eta gutxien edo gehien egokitzeko prozesuan (Sanchéz, 2007).

Era berean, familiartekoentzako egokitzapen-aldi egoki bat ezartzearen egokitasunean pentsatzen da. Zentzu horretan, norabide bikoitzean proposatzen da: haiekin

eta haientzat. Hau da, bi kasuetan familiaren barruko bizipenaren eta ikasgelako dinamikaren arteko trantsizio egokia lortzen lagundu nahi da. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasun nabarmena dago adingabea uztera etsita dauden senideen artean, ondo tratatuta eta testuinguru egokian egongo dela jakinda ere, profesionalekin eta beste berdinen artean (Amar, 2022).

### 1.5 Etxekotze prozesuaren antolakuntza Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntzako curriculumak (237/2015 Dekretua) aipatzen duen modura, “Haurrak pixkanaka sartuko dira lehen aldiz ikastetxean, eta egokitze-aldi bat ezarriko da. Egokitze-aldi horren helburua da etxearen eta eskolaren arteko zubiarena egitea, eta haurrak apurka-apurka egokitzea eskolara” (o. 10).

Oro har, familiek eskolarekin duten lehen kontaktua, eskola ezagutzeko egunak, aurretiaz izena emateko unea, besteak beste. Une horiek guztiak sartzen dira lehenengo topaketen barnean, denbora tarte horretan hartuko baitu familiak eskolaren lehen irudia eta sortuko zaizkio lehen aurreikuspenak. Labur esanda, une horietan hasten dira etxekotzen (Febrer eta Jansá, 2011).

Harrera ona izateko, denboren eta espazioen malgutasuna aintzat izan behar da, aniztasunari erantzuteko gakoa baita. Malgutasun hori funtsezkoa da espazioetan, materialetan, ordutegietan eta baita egutegietan ere. Hori gabe, ezinezkoa izango litzateke haurren beharretara egokitzea. Espazioari dagokionez, harrera-denboran, gelak irekita daude familientzat, lagunduta egon daitezen eta haurrei segurtasuna eman diezaieten. Denborak ez dira berdinak pertsona guztientzat, bakarrak eta errepikaezinak baitira. Beraz, ia beharrezkoa da familiari nahierara laguntzeko ordutegiak eta denborak egitea (Vizcarra et al., 2021).

Hori dela eta, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan egiten dugun irakaskuntza-praktika orok antolaketa eta plangintza bat behar ditu. Hori une oro malgua izango da, eta gure ikasgeletara iristen diren haurren ezaugarrietara eta interesetara egokitu ahal izango da. Haurrek, lehenengo aldiz eskolara iristean, antolaketa bat hauteman behar dute, eta eroso sentitzen diren eta gelako eta ikastetxeko espazioak, ikaskideak eta gainerako helduak ezagutzen dituzten errutinak jarraitu behar dituzte (Iglesias, 2016).

Lehenik eta behin, ekainean egiten den bileran azaldu ohi dira, haurrek eskolan duten bizimoduari buruzko nondik norako guztiak: zer egiten duten, nola jostatzen diren, nola moldatzen diren… baita eskolako dinamikan nola barneratzen diren ere. Lehen bilera horrek noranzko biko topagunea izan behar du; funtsezkoa baita hori, familiek ere eskolari buruz dituzten zalantzak eta aurreikuspenak azaldu eta zalantza horiek argitu ahal izateko, alegia, eskolak familien sentimendua jaso ahal izateko. Batzar orokor horretan, azkenik, familia bakoitzarekin egiten den banan-banako bilera zer egunetan izango den adostu behar da. Bilera-eguna adosteko, familiaren beharrizanetara egokitu behar da, eta aukera zabala eskaini behar zaie (Febrer eta Jansá, 2011).

Jarraian, ikasturte hasieran, banakako elkarrizketa bat burutzen da familia bakoitzarekin, haur bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta interesak ezagutzeko, horrela haur bakoitzarekin lan egiteko eta haiei egokitutako hezkuntza-jarduerak garatu ahal izateko. Era berean, bilera orokor bat egingo da familia guztiekin, ikasturtean zehar eta gelako lehen egunetan egingo den metodologiaren berri emateko eta aurkezteko. Bilera horretan, familiak lasaitzeaz gain, haurra eskolara sartzean jarrera positiboak sustatzen saiatuko dira (Iglesias, 2016).

Izan ere, edozein harremanetan konfiantza da oinarria. Hezitzaileak haurraren eta familiaren istoria begiratu behar du. Modu honetara, irakasle taldeak haurra hobekiago ezagutzeko aukera du elkarrizketaren bidez. Hardunaldiaren, erditzearen, edoskitzearen, haurraren lo ohituren… inguruko informazio oro biltzen da bertan. Haurraren datuak ez ezik, familiarenak eta gurasoek haurrarekin duten harreman motarenak ere jaso behar dira. Horrela, zailtasunak dituzten gurasoei laguntza eskaini ahal izango zaie, euren seme-alabekin duten harremanean konfiantza hartzen joan daitezen eta eurekin duten tratua hobea izan dadin (Antero et al., 2014).

Lehen eskola-egunak, aurretiaz ondo pentsatu, eztabaidatu eta landutako uneak dira. Antolatzerako unean, behar bezala zehaztu behar da zer espazio, zer material eta antolamendurako zer baliabide dauden erabilgarri. Ondo hautatu behar dira jolaserako materialak, haurren interes eta premia guztiak bideratzeko aukera ematen dutela bermatzeko; era berean, ondo antolatu behar dira espazioak, familiek ere haien espazioa izateko. Gune berezi bat ere presta daiteke, familiak eskolan dauden bitartean gustura eta eroso egoteko. Horrez gain, komenigarria da espazio bat baino gehiago eskaintzea, gela barruan egon nahi ez duten haurrek handik kanpora ibiltzeko aukera izan dezaten (Febrer eta Jansá, 2011).

Haurra da aldendu behar dena gurasoengandik, segurtasuna eta konfiantza emanez bai hezitzaileak eta bai espazioak. Horretarako, familia eta haurren lehen eskola egunetan, familia barruko espazioetara sartzen da, ikastetxeko jardueretan parte-hartuz. Haurrak ez du bere ahalmenengan konfiantza izango inguruan dauden guztiek guraso zein hezitzaileek ez badute konfiantza eta haurrak ez badu hori somatzen. Aintzat izan behar da haur bakoitzak bere erritmoa duela, hori errespetatuz haur bakoitzak erabakitzen du noiz den fase horren amaiera (Antero et al.,2014).

Bestetik, komenigarria da haurrek atxikimendu objetu bat eramatea ikastetxera, segurtasuna transmititzen baitie eta prozesua erraztu. Ez da arraroa egunean zehar hainbat aldiz behar izatea objektu horiek ukitu, usaindu, ikusi… Horrez gain, haurrari segurtasuna ematen dio nork eramango duen eskolara, nor joango den haren bila… jakiteak. Hain zuzen ere, haurrek eguneroko bizitza antolatua eta errepikakorra behar dute, egoera baten ostean zer datorren jakiteak segurtasuna ematen baitio. Ez hori bakarrik, familiek eskola zer den azalduko diote lehenago haurrari: kanpotik ikusi, handik paseatzera joan… Horrela, haurrak ahalik eta irudi mental errealistena eraiki ahal izango du, itxaropen errealistak eskainiz. Era berean, argi eta garbi adierazi behar da eskolarekin ez dela mehatxatu behar, ez baita zigor bat. Agurra dela eta, komeni da esatea haur txikiek ez dutela oraindik denboraren nozioa barneratuta, baina eduki ditzakete (adinaren arabera) denbora-erreferentzia batzuk. Izan ere, haurra agurtzea garrantzitsua da, segurtasuna eta konfiantza transmitituz (Jauregizar, 2013).

Azkenik, gurasoak ikastetxera etortzean, harrera eta irteera uneetan, espazio barrura sartzen dira. Honi esker, haurrak trantsizio une hori lasaigo egiten du bere etxeko eredua eta ikastetxeko eredua batera izatean eta modu natural batean sartuz ikastetxera (Antero et al., 2014).

## 2. Metodoa

Behin etxekotzearen bilakaera, kontzeptualizazioa, eragileen garrantzia eta antolakuntzan sakondu eta murgildu ostean, ikerketa narratibo honen helburu, diseinu, lagin, tresna eta prozedurak deskribatuko dira.

### 2.1 Diseinua

Lan hau ikerketa narratiboaren bidez burutu da, errealitatea ikuspegi partikular batetik interpretatzen duen ezagutza modu bat dena. Ikerketa kualitatibo mota jakin bat den heinean, diziplina arteko ikuspegi analitikoen, diziplina anitzeko hainbat ikuspunturen eta metodo tradizional nahiz berritzaileen amalgama bat da. Hain zuzen ere, ikertutako errealitatean parte hartzen duten subjektuen ahotsa da bizi diren errealitatea hobekien ulertzen laguntzen diguna. Are gehiago, gertatutakoa deskribatzeaz gain, narratibek emozioak, pentsamenduak eta interpretazioak ere adierazten dituzte (Chase et al., 2015; Rivas, 2009).

Izan ere, esanahi, zentzu, identitate eta gertaera kulturalak inportatzen diren une beretik, narratiba funtsezkoa da errealitatea azaldu, testuinguruan kokatu, ulertu eta eraldatzeko. Beraz, errealitatea identitatearen, testuinguruaren eta sortzeko asmoen ikuspegitik interpretatzen duen ezagutza modu bat da kontakizuna (Bolívar eta Segovia, 2018).

Beraz, ikerketa honen bidez bai guraso eta bai hezitzaileen ahotsak bildu dira, etxekotze prozesuan zehar bizi izan dituzten bizipen zein emozioak jasoz. Hori ahalbideratzeko, aukeratu den teknika elkarrizketa erdiegituratua izan da, aldez aurretik ezarritako galdera irekien bidez aurrera eraman dena. Modu honetara, emaitzak grabazioen transkripzioetan oinarrituz aztertu dira.

Zalantzarik gabe, ikerketa narratiboak ahalbideratzen duen modura, atzera begirako berreraikuntza horren balio biografikoak bizi izandakoaren balioa berreskuratzeko aukera ematen du. Berreskuratutako denbora hori irakaskuntzan parte hartzen duten subjektuen, gurasoak eta irakasleak bereziki, azterketatik sortzen diren narratiben zentzumenekin eta esanahiekin lotzen badugu, balioa zabaldu egiten da ikertzailearen ikuspegia zabalduz (Porta eta Flores, 2017).

### 2.2 Helburuak

Ikerketa narratibo honek, hurrengo helburu orokorra du euskarri gisa: (1) Eskola eta familien arteko harremanen azterketa etxekotze prozesuan.

### 2.3 Parte-hartzaileak

Laginaren deskribapenari dagokioenean, helburuan oinarrituz ikerketa honetan guztira zazpi elkarrizketa burutu dira; hau da, lau hezitzaile eta hiru gurasoen ahotsak bildu dira. Honekin batera, aintzat izan behar da, bai guraso eta bai hezitzaileak aurtengo ikasturtean bizi izan dutela etxekotze prozesua, guztiak emakumezkoak izanik. Hori gutxi balitz, aipagarria da parte-hartzaile guztiak Gipuzkoako Goierri eskualdekoak direla, landa eremuko herri txiki ezberdinetakoak.

Hari berari jarraituz, elkarrizketatutako hezitzaileak, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan lan egiten dute, hots, 0-3 etapan. Gainera, lau irakasleetatik bik ikastetxe publikoetan egiten dute lan eta beste biak berriz, itunpeko ikastetxetan (ikastoletan zehazki). Honekin batera, aipagarria da elkarrizketatutako hezitzaileen adin tartea 38-54 izan dela.

Gurasoen kasuan berriz, haien seme-alabak Haur Hezkuntzako bi urteko gelan aurkitzen dira eta ikastetxe publikoetan daude eskolatuta. Halaber, aldez aurretik etxekotzea bizi izan dute, seme-alaba zaharragoekin jada prozesua bizi izan dutelako edota haurrak haur-eskolatik datozelako. Modu berean, elkarrizketatu diren gurasoen adin tartea 33-34 izan da.

**2.4 Tresnak**

Erabili diren tresnei dagokionean, ezarritako helburu nagusiari erantzuteko ad hoc sortutako bi galdetegi gauzatu dira. Hau dela bide, bi galdera-sorta eratu dira, bata hezitzaileentzat eta bestea aldiz, gurasoentzat. Dena dela, nahiz eta bi galdetegi ezberdin jorratu diren, etxekotze prozesuko une berak identifikatu dira bietan, beraz norabide berekoak izan dira. Hezitzaileen kasuan, hamalau galdera ireki biltzen ditu galdetegiak eta gurasoen kasuan berriz, erantzun irekia duten hamabost galdera aurkitzen dira. Ez hori bakarrik, aipagarria da material bibliografikoen erabilera iradoki dela.

**2.5 Prozedura eta analisia**

Ikerketa lan hau abian jartzeko, lehenik eta behin etxekotzearen inguruko aurrekari bibliografikoa bildu da. Mendebaldeko kulturan zehar egokitzapen aldiko bilakaera, etxekotze prozesuaren kontzeptualizazioa, prozesuaren eragina, helduaren garrantzia prozesuan eta azkenik, prozesuaren antolakuntza Haur Hezkuntzan zehaztuz eta sakonduz.

Behin bilaketa bibliografikoa egin eta gero, aurrera eraman den diseinua aukeratu da, ikerketa narratiboa izan dena. Honen bidez, etxekotze prozesuan parte hartzen duten indibiduoen emozio, bizipen eta ahotsak biltzeko aukera eskaini da.

Jarraian, elkarrizketa erdiegituratua sortu da, etxekotze prozesuko egoera posibleak identifikatuz. Hori horrela delarik, galdera-sorta bat hezitzaileei zuzenduta dago eta bestea berriz, gurasoei. Modu berean, beste material bibliografikoen erabilpena iradoki da bi kasuetan. Ondoren, lagina bildu da, hots, parte-hartzaileak elkarrizketarako prest zeuden ziurtatu da. Era berean, prest zeuden bai hezitzaile eta bai guraso hauekin hitzartu da elkarrizketa burutzeko eguna. Haien bizipenak grabatzeko baimena eman ondoren, erantzunak jaso eta transkribitu dira. Azpimagarria da datuak biltzeko prozedura etikoa eta konfidentzialtasuna aintzat izan direla, haien datuen babesa bermatuz.

Analisia burutzeko datuak kodifikatu dira, hezitzaileak eta gurasoak bereiztuz eta elkarrizka zenbakituak erreferentziatuz:

- Hezitzaileak: H., ondoren elkarrizketaren zenbakia adieraziz. Adibidez: (H.2)
- Gurasoak: G., ondoren elkarrizketaren zenbakia adieraziz. Adibidez: (G.1)

Elkarrizketak burutu eta transkribatu ostean, kategorizazio sistema osatu da, goitik beheragokoa edota deduktiboa gisa ere ezagutzen dena. Aldez aurretik zehaztu dira kategoriak (ikus 1. Eranskina), horien araberako erantzunak bakarrik eman baitira eta honen arabera egin da azterketa. Ildo beretik, transkripzioak jasotako kategorietan eta azpikategorietan txertatu dira (ikus 2. Eranskina). Modu honetara, kategoria eta azpikategorien arabera, ikerketa honen emaitzetan, konparaketa kualitatiboa eraman da aurrera. Hau da, hezitzaile eta gurasoen arteko desberdintasunak eta amankomunean dituzten ezaugarriak gainazalean jarri dira. Azkenik, ondorioetan emaitza nabarmenenak teoriarekin alderatuz eta lotuz.

## 3. Emaitzak

Jarraian, kategorien arabera eman diren erantzunak deskribatuko dira, hamabi ataletan banatu direnak.

### 3.1 Kontzeptualizazioa

Kontzeptualizazioari dagokionez, lehenik eta behin, etxekotze prozesuaren definizioaren inguruan bildu diren emaitzak adieraziko dira eta ondoren, elkarrizketatuak egokitzapen-aldiarekin ala etxekotzerekin identifikatzen diren azalduko da.

Izan ere, definizioari erreparatuz, haur zein familiek eskolan egiten dituzten lehen urrats horiek "Aldaketa asko eta gauza berri asko dakarren prozesu bat da eta umearen trantsizioa arinago egitearren, lehen aipatutako emozio hoiek bereganatzea eta sentitzea dela definituko nuke." bezala definitzen du H.2-k. Argi dago, elkarrizketatuen arabera, etxekotzea kontzeptua egun ez dela sarritan entzuten. Hala eta guztiz, adostasuna adierazten dute kontzeptuaren esanahiarekin. Hau da, ez da soilik haurra eta familia egokitu behar ikastetxera, baizik eta hezitzaileekin eta ikastetxearekin lankidetzan jardun behar da. Honen inguruan, H.4-k hurrengoa dio:

> "Etxekotzea prozesue, egie da guk termino hori ez deu asko erabili orain arte, baino azkeneko urtetan bai jun gea gure arten komentatzen eta guraso bileratan batez ere, lehenengo harrera hortan azaltzen diegu ez dela haurra egokitu behar ikastetxera edo familia ikastetxera. Baizik eta gu ere irakasle bezela eta ikastetxea ere famili ezberdin bakoitzera egokitu behar geala eta ume ezberdin bakoitzera egokitu ein behar geala. Eta hitz hori, egokitze hitz hori, ai gea pixkana-pixkanaka aldatzen edo ordezkatzen, ze egokitzea ematen do alderdi bat ez daula berea ezertarako aldatzeko prest."

Ildo beretik, gurasoek orokorrean prozesu gogor eta zaila dela diote etxekotzea. Hori dela eta, G.1-k "Prozesu zail bat, azkenen denok pasa beharra daukeuna. [...] Eta beharrezkoa, beharrezkoa azkenen bestela umentzako eta bai gurasontzako prozesu gogorra izan daikelako eta poliki-poliki itea trantsizio hoi beharrezkoa eta egokie, gustora bai." dio. Aldiz, G.2-k prozesua "Zure ondon egotetio, pixkat ateratzen dan bidea edo. Ba azkenen, zure etxen egotetio eta ia eskolaratzen dezun hortan, zure umetxo hori ba beste norbaitekin partekatzea, laguntxokin, eta bera ere gehio irikitzea edo zabaltzea beste pertsonekiko." dela azaltzen du.

Bestalde, oro har hezitzaileak etxekotzearekin identifikatzen dute haien burua, horren adibide da H.4-k adierazten duena:

> "Ba nik uste det etxekotzea askoz ere egokigo erabilita daun hitze dala, dudaik ez dau kasu baten irakaslek edo ikastetxek ez baldin bado ezer-ezer aldatu behar famili eta haurren aniztasunei erantzuteko, ba gaizki goaz. Zurrun jartzen baldin bagea esanez 'guk ordutegi hau daukeu eta ez badatorzkizu ondo, hor konpon' edo 'guk

sarreran bi muxu eta agur esaten deu eta hori ein nahi ez badezu, ba agur' ba gaizki goaz. Oso nekeza izango da ume horren etxekotzea ikastetxekin eta harreman hori seguraski desegokie izango da hasiera hasieratik, apego hori."

Kasu honetan, gurasoak guztiz ados daude hezitzaileek diotenarekin eta etxekotzea kontzeptuarekin erosoago sentitzen direla adierazten dute, horren adibide da G.1-k "Ba etxekotzeakin igual azkenen gure prozesue hola bizi gendulako. Azkenen denok ginen parte, denok hartu beharra genitun gure ardurak, lanak edo ez dakit nola esan gure zeregin txiki batzuk eta denak izan ginen prozesu horren parte. Ordun, bai etxekotzea." dioena.

### 3.2 Prozesuan sortarrazten diren emozioak

Hezitzaileek oro har, prozesua lasaitasunetik bizi dutela nabarmentzen dute. Are gehiago, lasaitasuna eta konfiantza guraso zein haurrei transmititzea funtsezkoa dela azpimarratzen dute. horren adibide da H.3-k azaleratzen duena:

> "Beno ba nik uste det, nik lasaitasunetik bizi detela, ba azkenen diskurtsoa nahiko garatuta daukeu profesional bezela, [...]. Ordun, oso inportantea da hor ba irakaslea edo hezitzailea edo umekin lanen dauna pixka bat lasai egotea, lasaitasun hori umei eta askotan behar handie izaten due familik. Ordun familikin lasai eon eta lasaitasun hori transmititzea. Azkenen konfiantza ematea, 'oain gaizki ikusten dezu, baino lasai eon zaitez ze hau ez da betiako, iritsiko da momentu bat ondo ikusiko dezuna', gurasoi ere konfiantza hori transmititzea."

Gurasoak bizi izaten dituzten emozioak berriz, guztiz ezberdinak dira hezitzaileekin alderatuz. Hau horrela izanik, beldurra, tristura edota kezkak nagusitzen dira, batez ere prozesuaren hasieran ezjakintasuna dela eta. Hain zuzen ere, horren adibide da G.1-ek adierazten duena:

> "Ba esandakoa, hasiera baten bildurrez, ba gauza berri bat zalako eta ez genikigulako baita umek nola erantzungo zon, guregan ere ze eragin izan zeiken. Eta gero umek oso ondo erantzun zon, planteauta genun denbora baino lehenago egokitu zan eta hobetu zon eskolako giroa eta denea. Eta gure aldetik oso ondo bizi genun, gainea irakaslek ere bere laguntza erakusten zigun denbora guztin, segurtasune, eta oso oso gustoa eta errexa."

### 3.3 Lehenengo harremana hezitzaile-guraso

Atal honetan, hezitzaile eta gurasoen arteko lehen harremaneko antolamendua erreparatuko da. Jarraian, elkarrizketatuak une honetan bizi dituzten barne bizipenen emaitzak azalduko dira.

Lehen-lehenik, ikasturtea hasi baina lehen gauzatzen da hezitzaile eta gurasoen lehen harremana, batik bat familiei segurtasuna eta lasaitasuna transmititzeko helburuz aurrera eramaten dena. Horren adibide bada jarraian H.1-ek dioena:

> "[...] Ordun, ekainen ia, zuzendaritzak izendatu zian nei bi urteko tutore eta hor ia ein non bilera bat beaikin, ekaina bukaeran azkeneko asten, ia beste ikasleekin bukatutakon. Eta hor ia izan zan lehenengo kontaktua, ba gurasok nei ezautu ziaten, nik beaiei eta azaldu nien pixkat egokitzapen aldie nola izango zan eta ze dokumentazio beharko genun eta lau gauza. Batez ere zan beraiek lasaitu eta lehen kontaktu hortako."

Ondoren, banakako bilera bat burutzen da guraso eta haurrekin, haien zenbait ezaugarri bilduz. Gainera, aipagarria da elkarrizketa honetan, hezitzaileak eta haurrak elkar ezagutzeko aukera izaten dutela. Horri erreferentzia eginez H.3-k aiderazten duen moduan:

> "Beno lehenengo elkartzen gea ikasturtea hasi baino lehen, ba pare bat egun lehenago edo hola, familia eta umekin bakarka ba ordu erdi bat edo. Pixka bat familien ezaugarri batzuk eta hola ba galdeketa bat daukeu, famili eta umen ezaugarri batzuk pixka bat jasotzeko, ba umek ze ohitura ditun, nola jolasten don… Eta hor aprobetxatzen deu pixka bat umekin ere lehenengo bakarkako harremana eiteko."

Gurasoek ere, hezitzailearekin gauzatzen den lehen harreman hau beharrezkotzat ikusten dute, elkar ezagutzeko baliogarria eta aberasgarria baita. Ez hori bakarrik, prozesuaren antolamenduaren inguruko zehaztasun gehiago ere azaltzen zaizkie, segurtasuna, konfiantza eta gertutasuna oinarri izanik, G.1-en hitzetan:

> " [...] Azkenen, berak azaldu zigun dena nola izango zan, berak nola funtzionatzen don, gelan ze ingo zuen, nola ba egunerokotasunen nola lantzen duen dena eta pauta batzuk eman zizkigun ba prozesu hoi nola aurrea eraman, ba gu adibidez lehenengo sartzen ginen gela, gero geitzen ginen ate ondon. Bazeuden hor etapa

edo fase desberdin batzuk, aurrez azaldu zitzaizkigunak oso ondo. Eta hezitzaileekin inungo arazoik ez, momentu guztin bere laguntza jaso genun eta arreta ere bai ordun, gustoa oso oso gustoa."

Hori gutxi balitz, lehenengo harreman honetan bai hezitzaile eta bai gurasoek emozio zein bizipen anitz jasaten dituzte. Barne bizipen hauei erreferentzia eginez, hezitzaileek gurasoekin lehen hartu-emana ederra izaten dela aitortzen dute, nahiz eta aldi berean urduritasuna sortarrazten zaien. Hain zuzen ere, H.2-ren hitzetan "Lehenengo bilera hauek, guri ere, urduritasun punttu bat sortarazten digute. Hala ere, beti segurtasunez eta konfidantzaz hitz egiten diegu, lasaitasuna transimituz, hori oso garrantzisua baita.". Horrez gain, H.4-k lehenengo harreman honek "Ba familiarekin lehenengo harremana izaten da oso ederra. Familik etortzen die [...] oso jarrera positibokin eta gogokin eoten die elkarlan hori eiteko. [...] Urduritasune baino aldi beren familikin hasierako hartu emana izaten da ederra, errexa, nahiko errexa izaten da." sortarrazten dioela azaleratzen du.

Hari berari jarraituz, gurasoek ere lehenengo harremana bizipen aberasgarri gisa oroitzen dute, prozesuaren nondik-norakoak zehaztu baitzituzten, konfiantza funtsezko osagaia izanik. Era berean erreferentzia egiten diote, G.3-ren hitzetan esate baterako:

"Ba oso esperientzi ona izan zan, oso gertukoa izan zan eta konfiantza haundie eman zigun. Eta hasieratik, pausoak asko azaldu zigun eta horrek berak, konfiantza haundie sartu zon neregan, behintzet lehenengo aldie zala. [...] Eta alde horretatik ikusita, pila bat lagundu zigun irakaslek prozesu hortan."

### 3.4 Lehenengo eskola eguneko harrera

Lehenego eskola eguneko harrerari erreferentzia eginez, lehenengo antolamenduaren inguruan hezitzaile zein gurasoen erantzunak azaleratu dira eta ondoren, prozesuaren une honek biltzen dituen barne bizipenak.

Lehenengo eskola egunetan, arreta indibidualizatua ez ezik, gurasoak ikasgela barruetara sartzen dira. Hain zuzen ere, H.2-k "Talde txikiak egiten dira, lehen eguneko harrerak ahalik eta indibidualizatuenak izateko. Lehengo egunetan, gurasoak gurekin egoten dira gelan. Gurasoen presentziak lasaitasuna ematen die haurrei eta horrela espazioekin eta gurekin konfidantza hartuz joaten dira poliki-poliki." azpimarratzen du.

Modu berean, baliteke lehen eskola egunetan gurasoak ikasgela barruan deseroso aurkitzea. Egoera honen aurrean, hezitzaileen kudeaketa funtsezkoa da, gurasoak ikasgelan eroso egon daitezen bermatu behar baitu. Hori ahalbideratzeko, bide anitz daude, horietako bat, gurasoen intereseko denbora-pasak izan daitezke. Hala nola, H.1-k gurasoek bizi duten egoera nabarmentzen du eta honekin batera, egoerari nola egiten dion aurre azaltzen du:

> "[...] Egun bat edo bi pasa zituzten gurasok gelan, eta gero ia nik ikusten nitun gurasok beak zeudela deseroso gela barrun, ez zekiten zer ein. Eta hori, formakuntza hoietan esan ziguela gurasok jartzeko lanen, entretenituta, ze klaro hola eotea beraientzat batzuntzat oso deserosoa da [...]. Ordun, bakoitzai bere aulkia jartzeko eta bakoitzak ekartzeko liburu bat irakurtzeko, edo punto iteko, edo margotzeko zerbait, zeozer. [...] Eta ordun nike ulertzen det, ba deseroso zeuden hemen, ez zekiten ze ein eta bi edo hiru eunea esan nien 'beittu, aulkik kanpon jarrizkizuet eta bi atek irikita, ba nik ustet zuek hor lasaiago eongozatea', ta 'bai, bai, bai, bai' esan ziaten, 'bale baino nahi zuenen sartu e, ez dau arazoik, baino nik zuengatik esateizuet eta umea nahi donen jungo da'. Eta egie esan, umek oso ondo onartu zuen gurasok hor eotea, juten zian, etortzen zian, batzuk askotan, beste batzuk behin bakarrik erakustea zerbait, besten bat inoiz. Eta poliki-poliki ba jun gea graduatzen, pixkat ba umean arabera e pauso hoiek."

Horrez gain, ados daude hezitzaileak eskarmentua lagungarri dela, aldez aurretik bizi izandako esperientziek bidea ereiten laguntzen baitute. Horren adibidea bada jarraian H.4-k adierazten duena:

> "Eta kudeaketa nola eiten dan, eskarmentue izatek asko laguntzen do. Egie da, aldez aurretik dauzkezun bizipenak esatezu ba pelota batek igual gurasondik banandu ezin don horri, ba objetue behintzet bota diezaiokezu eta berak itzuli zuri, pelota batek laguntzen dizu adibidez. Gauza oso txikik, beraientzako xarmantak izan daizkenak ba igel txiki bat, txakur txiki bat, gauza txiki bat beraien eskun kabitzen dana eta etxea eramaten utzi daikezuna eta hurrengo egunen ekartzeko ardura daukena. [...]"

Bestetik, gurasoak bizi izan duten egoera berri honen eta aurre egiteko moduaren inguruan mintzatu dira. Izan ere, garrantzitsua da aldaketa honen aurrean, gurasoak haien seme-alabekin aldez aurretik hitz egitea. Horren adibide da jarraian G.3-k biltzen dituen hitzak:

"Aurretik hitz ein da berakin, noa jun behar gean, ze ikusi behar deun, zer dan, … Asko hitz ein genun etxen, bera dan bezelakoa izan da, ze kosta eiten zaio hola ikusita. Eta irakasleen izena esaten, gela nolakoa dan, asko hitz ein, ia familiarizauta zeuken jun aurretik ia pixkat. Eta gero, eskola ikusita zeuken aurretik baita, aurretik ikusi ahal izan zon eta hori ere aberatsa izan zan.

Hezitzaileek, beste behin, lasaitasunetik bizi dute une hau, H.3-k "Beno ba, batzutan, lehen esan dizuten bezela, ba saiatzen naiz pixka bat lasaitasunez. [...] Eta beno, ba ahal dan lasaiena eta baita ere gogotsu famili berrik ezautzeko eta haur berrik ezautzeko eta beste bide bat hasteko baita ere." nabarmentzen duen gisa. Are gehiago, lehen aipatu den moduan, eskarementua oso lagungarria dela nabarmentzen dute, H.2-k azaleratzen duen moduan "Hezitzaile bezala, eskarmentua izateak asko laguntzen du eta egokitze prozesua lasai bizitzen dugu. Enpatikoak izaten saiatzen gara eta prozesu honetan, pazientzia izatea oso beharrezkoa da.".

Aitzitik, gurasoek lehenengo eskola egun horietan dituzten barne bizipenei erreferentzia eginez, urduritasuna gailenduz, G.2-k hurrengoa "Ba beno, nik uste det pixkat ba umek bezela nerbio punttu batekin. Bai, ze umek ikusten dituzu gogotsu eta darela juteko baita, eta gero prozesu hortan laguntzen diezu baita bai lehenengo aldi hori ahal dan politena izaten umentzat baita ere." nabarmentzen du.

**3.5 Banantzea**

Egia da, larritasuna agerikoa dela haurrak bere atxikimendu-irudiarengandik banantzean. Izan ere, hezitzaileek bai haurrak eta bai gurasoak banantzen diren une horren kudeaketaren inguruan, adibide gisa hurrengoa dio H.1-ek:

"Negar ein behar badu egin behar du bai, baino nola eta zergatik. Ez nik hola umea kentzen detelako modu txarren eta ez, umeak negar ein behar du emozio, tristura edo haserrea botatzeko, baino ez gauzak ez dialako ondo ein. Lehen e umea besotatik kentzea nik asko ikusi det gurasoi bi urteko gelan eta oain berriz, esaten zaigu ezetz, umea ez kentzeko besotatik. Gurasoak eman ein behar dizu umea, nahiz eta negar baten eon, gurasoa da umea entregau behar dizuna. Detaile txikik dia baino gero eragin handia daukate. Ze umeak hola ez du sentitzen, bere aman besotatik arrankau det, edo bere aitan besotatik, hori oso gogorra da. Nola lortuko do konfiantza ume horrek nekin bere amai hola kentzen badiot, edo aita edo amonan

besotatik? Ama da eman behar ditena edo aita esanez ‘nearrez dau, baino nik konfiantza daukat zugan umea hola uzteko’.”

Bestetik, oro har gurasoei banantze une hau gogorra egiten zaiela aitortzen dute, horren adibide da G2-k oroitzen duena:

“Uff, pena. Uzten ziten askotan, gogoatzen naiz lehenengo umetxokin, lehenengo eunek izan ziela netzako baita bajoi momentu bat. Negargura, ze ikusten dezu umea negarrez eta zure besok eskatzen dizula eta askotan igual, hezitzailek esaten dizu ba ahal dan kasu gutxina eiteko. Ordun da, bihotza erditik puskako balizu bezela, esatezu jo ni bertan nau, ezin diot umea lasaitu esaten diazulako ez lasaitzeko baino aldi beren, frustrazio punttu bat.”

### 3.6 Agurrak

Hezitzaileak ados daude agurretan komunikazioa ezinbestekoa dela eta batez ere, une oro zintzoki jokatzea. Era berean, konfiantza, segurtasuna eta lasaitasuna transmitizearen garrantzia nagusitzen da eta horretarako, komunikazioa da euskarri. Une oro, aintzat izan behar da, famili zein haur bakoitzak bere erritmoa duela, aldez aurretik esperientzia ugari eta ezberdin bizi izan dituela bakoitzak. Hala nola, H.4-k “[...] Gurasongandik agurrak, komeni izaten da edo guk aholkatzen deu ziurtasunez eitea. Gurasoa baldin badau umea baino ere urdurigo bera eta negargure gehikoin bera, ba ez da izaten errexa.” adierazten du. Hari berari jarraituz, H.2-ren hitzetan:

“Beti ere, egiarekin jokatzea beharrezkoa da eta bakoitzari bere denbora ematea funtsezkoa da prozesu honen aurrean. Gauzak ondo azaltzen dizkiegu eta ahalik eta informazio gehien ematen saiatzen gara, beraiek lasaiago gelditu daitezen. Esan bezala, familia eta haur bakoitzak egokitzeko bere denbora behar du eta hori errespetatu behar dugu. Familia eta hezitzailearen arteko komunikazioa oso garrantzitsua da, beraiek ere lasaitasun osoz edozer gauza guri komunikatu ahal izateko. Ahal den heinean, beraien egoerara egokitzen saiatzen gara.”

Arestian aipatu den moduan, agurretan garrantzitsua da egiarekin jokatzea, horren adibide da jarraian G.2-k oroitzen duena:

“Agurrak, konturatu naiz hobea dala motxak eta laburrak izatea. Ze pixkat luzauz geo, zure besotan bukau nahi izaten dute eta ahalik eta motxena izan, errexago

izaten da. Ordun zerk laguntzen zaitun? Ba egie esaten, adibidez lanea nijola eta gero egongo gea eta hori, gezurrik ez esaten behintzat."

Beste alde batetik, haur-eskolatik eskolara alde handia nabaritu dute agurrak direla eta, hain zuzen ere informazio falta somatzen dute une honetan. Horren adibide da G.1-k oroitzen duena:

"[...] Azkenen, haur-eskolan azkenen ez gea denok batea juten beraien bila, bakoitzek bere ordutegie dauke orokorren, ez ginen denak batea tokatzen eta ordun, informazioa konstantea zan. Kuadernotxo bat genun, egunero apuntatzen zitzaigun kaka in zon, pixe in zon, umea zemuz eon zan, zemuz jan zon. Eta eskolan igual bai botatzen dala faltan egunerokotasuneko informazio hori, askotan ez dakizu igual umek goizen kaka in don, nolako kaka in don, hamaiketakoa jan don edo ez don, zemuz egon dan, triste egon dan. [...] Egie da, guk behar deunen edozein garaitan hor daola, eta berak ere bai alderantziz, baino bai egunerokotasuneko detaile txiki hoiek edo informazio txiki hoiek galtzen diela."

### 3.7 Harreman afektibo berria eraikiz

Era berean, etxekotze prozesuak harreman afektibo berria eraikitzea dakar, bai hezitzaile eta haurraren eta bai hezitzaile eta gurasoen artean.

Hezitzaileek haurrarekin eraikitzen den harreman afektibo horretan, konfiantza, ziurtasun afektiboa eta lasaitasuna nabarmentzen dituzte batik bat. Hala nola, horren adibide da H.1-k dioena:

"Ziurtasun afektiboa. Beaiek sentitu behar due hemen gaudela, behar duenen hemen gaudela eta erantzun bat eman beharko dieula behar duenen bai mine hartzen duenen, bai triste daudenen, bai pozik daudenen eta une oro. Inkondizionalki gaudela hor behar dutenen. Eta hori nabaritzen dutenen umeek, aurrea dijo. Ze umeek maitagarrik dia eta umeek sentitzen badute maitatuak diala, behar duenen hor daukatela pertsona hori, edo gu hemen bi eta hiru urtekok adibidez geala tutorek, umea iriki eiten da."

Hori gutxi balitz, H.3-k are gehiago sakontzen du haurraren eta irakaslearen arteko harreman afektibo honen inguruan, ahots-tonua eta gorputz mugimenduaren bidez

konfiantza eta lasaitasuna transmititzea funtsezkoa dela adieraziz:

> “Beno ba lehenengoa heldue, irakaslea edo hezitzailea, lasai egotea eta hori transmititzea. Ze batzutan iruitzen zaigu lasai gaudela, baino gure ahots tonukin edo gure gorputzeko mugimendukin ba ez degu hori transmititzen. Ordun ba ahal dan ahots goxona erabili umeengana zuzentzen geanen, umen alturan jarri, ba pixka bat inguratu umea beai hitzeiten diogunen. Ba umek sentitu dezan konfiantzazko norbait daukela ondon, batez ere hori esango nuke.”

Aldiz, G.1-ek adierazten duen moduan “Nik azkenen ulertzen det umea gelan berakin daun denbora guztin ai diela lantzen gertutasun hori edo. Bai hezitzaile berak esan da, askotan truko desberdinek, ba segun umek interes zehatz bat baldin badauke hortik igual gertugo edo errexago.”.

Hezitzaile eta gurasoen arteko harremanean berriz, komunikazioa gailentzen dute bai irakasle eta bai gurasoek. Izan ere, H.4-k “Ba harreman afektibo bat sortzeko behar dezu lehendabizi, informazio pixkat, bai ze tankerako ze tipotako famili eta umea dan. Ordun, hortako komunikazio sano bat baimenduta bideratu behar dezu.” dio. Era berean, G.2-k “Nik ustet gehien bat gertutasune izatea eta konfiantza. Azkenen, komunikazio bitartez transmititzea konfiantza eta gertutasun hori.” azpimarratzen du. Honekin batera, G.3-ren arabera:

> “Ba hasiera baten, beno guk zortea euki genun jakin genula ia zein zan aurretik irakaslea, baino beste askotan ez da jakiten, eta hori garrantzitsue da pixkat zein dan jakitea eta horrek berak ematen dizun segurtasune. Eta beste alde batetik, beno guk zortea daukeu eta oso gertukoa zaigu eguneroko harremana. Egie da, hasiera baten ez dezula ezautzen, baino beno ia bileran gertutasune, predisposizio haundie eskeini zigun eta horrek, segurtasune ematen dizu. Nahiz eta, deskonfiantza beti daon ze ez dezu ezautzen, baino beno bai.”

### 3.8 Haur eta familien erritmoa

Elkarrizketatutako hezitzaileen arabera, saiakerak egiten diren arren, ezinezkoa da haur eta familien erritmoa errespetatzea prozesu honetan zehar, zenbait muga direla medio. Hain zuzen ere, horren adibide da H1-ek “Beti ez da, ez da posible. Saiatzen gea baino, beti ez da posible. Bat eskolan antolaketangatik eta bestea, familien antolaketagatik. Hala ere, nik

horrei garrantzi handia ematen diot eta poliki-poliki ai gea aurreapausuk eiten.” dioena. Are gehiago, H2-ren hitzetan “Aurretik esan bezala, beti familiaren egoerara moldatzen saiatzen gara, baina egia da, Ikastolan dauzkagun ratio, ikastolaren funtzionamendu eta antolakuntzagatik beti ez dela posible baina oso malguak izaten saiatzen gara.”

Ahatik gurasoek, erritmo hori errespetatzen saiatu direla adierazten dute, nahiz eta beti ez den posible aitortu, modu honetara azaleratzen du G.3-k:

> “Saiau gea. Posible da beti? Ezin da, ze daon bizi estilokin, ez da posible. Baino beno, saiau gea alde guztitan, ba murrizten jornada, ba dana esaten dizut, ba eszedentzie, dana ein deula berai beida, saiatuz. Baino askotan hala ere zaile da, ezinezkoa dezu.”

### 3.9 Etxekotzearen amaiera

Etxekotze prozesua amaitutzat ematen den unearei erreferentzia eginez, H.1-ek “Umea gai danen gurasoai lasai agurtzeko eta eskolara lasai etortzeko.” adierazten du. Era berean, H.2-ren hitzetan “Haur bakoitzak, segurtasun hori lortu duenean, eta espazio eta hezitzaileekin konfidatzaz gelditzen denean, prozesua amaitutzat ematen dela esan genezake.”.

Gurasoei dagokienean, G.2-k modu honetara oroitzen du etxekotzearen amaiera:

> “Egokitzapen aldi hori bukatu zan gehien bat ba ia ikusi genunen umea ere bere kabuz gustora gelditzen zala, eta ia irakasleekin beharrezko konfiantza hori hartu zola, eta irakaslea bera ere ezagutu eta elkar ezagutzen hasi zien momentun ia ba egokitzapena ez zan beharrezoa ikusten.“

### 3.10 Familien etxekozea

Zalantzarik gabe, hezitzaileek familiek ere prozesu honen beharra dutela baieztatzen dute. Horren adibide da H.1-k “Ba bai bai, asko, batzutan umeek baino behar gehio eukitzen due. Gurasoa ere ez badau ondo, umeai transmititzen diona ez da ona. Umeak pertzibitu eiten do dana, umeak oso sensiblek dia.” baieztatzen duena.

Halaber, gurasoak ere baieztapen honen aldekoak dira, G.2-k “Bai, nik ustet baietz. Ze azkenen guraso berak ere irakaslekin ezagutzeko denbora bat behar da eta hori, ba azkenen baita ere egokitzapen bitartez ere lortzen da.” dioen modura. Ez hori bakarrik, G.1-k, familiek ere prozesuaren beharra dutela azaltzen du baina horretarako baldintzak behar dituztela azpimarratzen du:

> “Poliki-poliki eitea komeni zaigu ze bestela ... Egie da, gero aldi beren arazoa edo dala azkenen lanea jun behar dezu, euki beharra daukezu disponibilidade oso haundie egunero juteko eskola ordu erdi, bihar ordu erdi, hurrengon ordu bete. [...] guri egie da, kasu hortan, ondo eta beharrezkoa.”

### 3.11 Mugak

Argi eta garbi dago beraz, etxekotze prozesuan zenbait muga edota oztoporekin aurkitzen direla hezitzaile zein gurasoak. Alde batetik, ikastetxearen aldetik aurkitzen diren mugak daude eta beste aldetik berriz, familiek dituzten oztopoak.

Lehenik eta behin, ikastetxeari erreferentzia eginez, etxekotze prozesuan zenbait muga identifikatu dira, batik bat ratioei dagokienez. Izan ere, H.2-k “Ratio altuak ditugu eta arreta oso indibidualizatua izan behar den momento hauetan, zaildu egiten zaigu prozesua, askotan kosta egiten zaigu haur bakoitzarengana iristea.” nabarmentzen du.

Horrez gain, bai egutegi eta bai ordutegiak malguagoen alde aurkitzen dira elkarrizketatutako irakasleak. Horren adibide bada jarraian H.3-k dioena:

> “Hori eta gero baita ere, ordutegi kontzeptue ez? Batzutan iruitzen zaigu ba eskolako ordue, goizetan adibidez ze atsaldetan egie da ba bi urteko gelan behintzet askoz gutxigo etortzen die, ba eskolako ordutegie baldin bada bederatzietatik gure kasun hamabik eta laurdeneta badirudi derrigorrez ordutegi hori ein behar duela. Eta beno nere ustez askotan eta batez ere lehenengo hiru hilabeten, ez da beharrezkoa ez da gutxigoik ere ordutegi oso hori egotea. Garrantzitsuna da umea ondo egotea, eta ordu terdi nahikoa baldin bado, ba ordu terdi. Baino batzutan ba ez da posible, nere aldetik hori gustatuko litzaidake.”

Bestalde, gurasoek prozesu honen inguruan informazio falta sumatzen dute, adibide gisa modu honetara oroitzen du G.3-k:

"Gero igual, informazio gehiago egotea, ze nik ustet ez daola informazioik horren ingurun. Ze irakaskuntzan edo horren ingurun baldin bada, badakizu ze garrantzitsua dan, nahiz eta gaizki pasa haurrak, hori pasau ein behar dala. [...] Nik ustet dala, desinforazio haundie daula. Hortan baldin bazaude badakizu, baino bestela ulertzen det ez daola. [...].

Familiek izaten dituzten mugak erreparatuz, hezitzaile zein gurasoak ados daude oztopo nagusiena kontziliazioa dela. Horren adibide da H.3-k "Faltan bota gehien bat familin ehunetik ehuneko disponibilitatea umearekiko, benetan errespetatzea umen erritmok eta umen beharrak. Ze batzutan ez da posible familik ez daukelako aukeraik. Baino nik uste det hori izango litzakela ideala." dioena. Halaber, G.3-k ere "Gehio lanan aldetik. Esan detena, uztea prozesu hori bizi izaten edo. Ze kasu gehienetan ezin dute ezta gurasok ein." nabarmentzen du.

### 3.12 Prozesuaren balorazioa

Hezitzaileek lehenengo etxekotzea bizi izan zutenetik gaur egun arte, prozesuaren ikuspegia asko aldatu dela baieztatzen dute guztiek. Horren adibide da ondoren H.4-k dioena:

"Lehenengo etxekotze prozesue bizi behar izan nonen, egokitzapena zan hura, egokitzapena, hitz horrekin. Ze gerora igual egokitze-aldia ere deitu izan diogu, xamurragoa eta politagoa zalako. Eta orain, etxekotzea iruditzen zait danetan egokina hori dala. Ba ordutik honea, ikasi detena igual izan da ezin dala hain zurrun izan ordutegikin, sarrera-irteerekin, hau da, malgutasun gehio behar dola bi norantzata. Alegie, ondo daon ume batek egokitze-aldie arinago in dezake, azkartu ein daiteke, bere izakeragatik eta aniztasun horretatik, eta gehixeago behar donai, gehixeago dau eman beharra. Baino horretarako, baliabidek behar die. [...]"

Ikuspegi aldaketa horren ondorioz, hezitzaileek zenbait ikaskuntza bizi izan dituzte; alde batetik, indibiduo bakoitzaren erritmoa ezberdina dela eta hori dela eta, egutegi zein ordutegien malgutasuna beharrezkoa dela. Ildo beretik, H.2-k denboran zehar bi ikaskuntza izan dituela nabarmendu du:

"[...] Eta hor ikasi ditugu bi gauza, alde batetik hori erritmo guztik ez diela berdinek eta bosgarren asten ume guztik ez daudela momentu berdinen eta erritmo hori egokitu ein behar dala. Eta bestea, azkenen bosgarren asten oaindik ordutegi osoa egin behar dolako, gurasoa ordutegi guzti hortan barrun eotek, horrek ere ez diola

umei laguntzen. Ze umek azkenen bizipenetik bizi behar dona da, ama juten da eta etorri eiten da. [...] Azkenen umek, errepikapen hortatik eta errutina hortatik ikasten do eta horrek ziurtasune ematen dio, ama juten da baino ez da betiako juten gero bueltan etortzen da. Ordun batez ere, bi gauzatxo hoiek."

Ahatik, gurasoek etxekotze prozesuan baloratzen dutena "Ba hori, profesionaltasune, gertutasune eta ba hoixe." (G.2) da. Honekin batera, prozesu konplexu bat den arren, erabat beharrezkoa dela aitortzen dute, G.3-k jarraian dioen bezala:

"Oso prozesu zaile dala eta behar dala nik ustet, guk zorte haundie euki deu irakasleengan ere, ulertzeko gaitasun hori dauken pertsona bat izatea eta umeai bere denbora utzi behar zaiola ulertzea. Askotan zaile dala, ze gure bizi martxakin umea ahazten da askotan, eta oso zaile da bere denbora behar dola eta ume bakoitze desberdine dala ikustea."

## 4. Ondorioak

Atal honetan, lehen-lehenik lortu diren emaitz nagusien balorazioa azalduko da, ondoren ikerketa lanaren mugak eta etorkizunerako hobekuntzak adieraziko dira eta azkenik, lanaren ekarpena hezkuntza arloan plazaratuko da.

### 4.1. Lortutako emaitz nagusien balorazioa

Ikerketa narratibo honi esker, zenbait ondorio nabarmendu dira emaitzetan oinarrituz. Hain zuzen ere, emozio anitz loratzen dira etxekotze prozesuan parte-hartzen duten eragile ezberdinetan.

Oro har, hezitzaile zein gurasoak etxekotzearekin sentitzen dira identifikatuta. Modu berean, prozesuan parte-hartzen duen alderdi ezberdinek dute ardura, hau da, hezitzaile eta ikastetxeak ere haur zein familia bakoitzarekin elkarlanean jardun behar du. Funtsean, prozesu honetan parte hartzen duten subjektu guztiak izan behar dira aintzat, besteak beste haurrak, familiak, erreferentziako hezitzaileak eta eskolako gainerako helduak. Haurrak eta gurasoak etxekotzeko prozesuan, ezinbestekoa da eskolaren eta familiaren artean alde biko hartu-emana ezartzea (Febrer eta Jansá, 2011).

Halaber, hezitzaileek orokorrean prozesua lasaitasunetik bizi dute, lasaitasuna eta konfiantza transmititzearen garrantzia nabarmenduz. Izan ere González-ek (2009)

adierazten duen moduan, hezitzaileak haurraren lekuan jarri behar du eta jarri behar du bere negarrak, pasibotasuna eta beldurra erantzun logikoak direla ulertzeko, erronka berriari aurre egiteko. Gainera, irakaslearen beste eginkizunetako bat gurasoei lasaitasuna eta segurtasuna ematea da.

Ahatik, gurasoak prozesu zail eta gogortzat jotzen dute, kezkak eta beldurrak gailenduz. Hain zuzen ere, konplexua da guztientzat, ez bakarrik haurrentzat, baita haien familientzat, hezitzaileentzat eta eskolarentzat ere. Gurasoek, ezjakintasun horretatik ere, segurtasun falta eta tristura sentitzen dute, eta batzuetan erruaren sentimendua agertzen da (Zazu, 2017).

Ildo beretik, banantzean haurraren larritasunaren aurrean, gurasoak ere une zail batetik igarotzen dira. Egoera honen aurrean, hezitzailearen kudeaketa ezinbestekoa da, bai haurra eta bai gurasoekiko. Izan ere, atxikimendu-irudia desagertzen denean, haurra larritu egiten da: negar eginez, garrasi eginez, adibidez, atxikimendu-irudi hori berreskuratzeko asmoz. Beraz, egoera honetan haurra da aldendu behar dena gurasoengandik, segurtasuna eta konfiantza emanez bai hezitzaileak eta bai espazioak. Haurrak ez du bere ahalmenengan konfiantza izango inguruan dauden guztiek guraso zein hezitzaileek ez badute konfiantza eta haurrak ez badu hori somatzen. Aintzat izan behar da haur bakoitzak bere erritmoa duela, hori errespetatuz haur bakoitzak erabakitzen du noiz den fase horren amaiera (Antero et al., 2014; Jauregizar, 2013).

Agurrei erreferentzia eginez, bai hezitzaile eta bai gurasoek zintzoki jokatzea ezinbestekoa dela azpimarratzen dute. Jauregizar-en (2013) arabera, haur txikiek ez dute oraindik denboraren nozioa barneratuta, baina eduki ditzakete (adinaren arabera) denbora-erreferentzia batzuk. Hala eta guztiz ere, haurra agurtzea garrantzitsua da, segurtasuna eta konfiantza transmitituz.

Bide hartan guztian, lotura afektibo berriak eraikitzen dira prozesuaren parte diren subjektu ororen artean. Horretarako, ezinbestekoak dira ziurtasun afektiboa, konfiantza, komunikazioa eta gertutasuna besteak beste. Zazu-ren (2017) arabera, une delikatu horrek bi prozesu lotzen ditu aldi berean. Alde batetik, aldi baterako lehen bereizketa fisiko esanguratsua eta gurasoen eta seme-alaben arteko urruntze emozionala. Bestalde, haurraren eta gurasoen eta hezitzailearen arteko harreman afektibo berria eraikitzean datza.

Honekin batera, prozesu horren helburua irakasleen eta haurren arteko lotura afektibo berriak sortzea da. Lotura hori, bi aldeen ekarpenei eta harreman egonkor eta

ordenatuari esker sortzen da. Hain zuzen ere, harrera-denbora hori zeharkako hiru ardatzetan oinarritzen da: isiltasuna, begirada eta gorputz-kontaktua (Vizcarra et al., 2021; Zazu, 2017).

Haurrak ikastetxeko espazioa zein erreferentziazko hezitzailea eremu seguru eta konfiantzazkotzat hartzen duenean, etxekotzea amaitzen den unea iristen da. Ez hori bakarrik, emozionalki lasai daudenean, ikaskideekin harreman sozial onak dituztenean eta proposatzen zaizkien jardueretan egoki parte hartzen dutenean amaitzen da prozesua. Hau guztia ahalbideratzeko, haurrak bere denbora zehatza behar du, baina aintzat izan behar da haur guztiak ez direla berdinak eta beraz, batzuen eta besteen prozesua ere ezberdina izango dela. Hain zuzen ere, ikasle bakoitzak sinesmen, esperientzia eta aurretiko ideia ezberdinak ditu abiapuntu, heldutasun-maila ezberdina eta trebetasun sozial eta emozionaleko maila ezberdinak. Horrek guztiak denbora eskatzen du, eta haur bakoitzaren erritmo pertsonaletara egokitzen saiatzea ezinbestekoa da (Pérez, 2010; Sánchez-López eta Cantero, 2007).

Nahiz eta familia eta haurren erritmoa errespetatzeko saiakerak egiten diren, egun ia ezinezkoa da. Febrer eta Jansá-k (2011) adierazten duten modura, askotan baliteke eurek moldatu behar izatea eskolara, erritmoetara eta eskolan lan egiten duten profesionaletara. Horrenbestez, eskolako antolamenduak bultzatuta, ordutegiak homogeneizatzera jotzen da batzuetan, haur guztiei aldi berean arreta eman ahal izateko.

Hori dela eta, etxekotzean zenbait muga identifikatu dira, prozesua oztopatu eta zailtzen dutenak. Alde batetik, ikastetxeari dagokionean, giza baliabideetan hutsunea dago, hots, esku gehiago behar dira. Haur Hezkuntzako lehen zikloan, bi urteko gelan zehazki, 18 ikasleko ratioa ezartzen baita EAE-n (Eusko Jaurlaritza, 2023). Horrez gain, etxekotzeak ikastetxeko egutegi eta ordutegiak malgutzea eskatzen du, haur zein gurasoen erritmoetara egokituz. Harrera ona izateko, denboren eta espazioen malgutasuna aintzat izan behar da, aniztasunari erantzuteko gakoa baita. Malgutasun hori funtsezkoa da espazioetan, materialetan, ordutegietan eta baita egutegietan ere (Vizcarra et al., 2021).

Hori gutxi balitz, familiak ere zenbait oztoporekin aurkitzen dira prozesuan murgiltzerako unean. Batik bat familiek etxekotzea eta norberaren lan-ibilbidea uztartzeko zailtasunekin aurkitzen dira, hots, kontziliazioa oztopo gisa aurkezten da. Kontziliazioa dela medio, familien lege-proiektuak (Congreso de los Diputados, 2023) lehenengo tituluaren hirugarren kapituluko hamaikagarren artikuluan hurrengoa biltzen du:

> “Bizitza pertsonala, familiakoa, profesionala eta lanekoa uztartzeko eskubidea gauzatzeko, langile guztien araudi espezifikoaren arabera, eta eskubide horiek modu arduratsuan erabiltzeko, administrazio publiko eskudunek neurri espezifikoak ezarri eta bultzatuko dituzte bateragarritasuna ahalbidetzeko eta erantzunkidetasuna sustatzeko, bai esparru publikoan, bai pribatuan. Halaber, aukera berak bermatuko dituzte emakumeentzat eta gizonentzat, pertsona guztiek beren lanbide-arloan aurrera egin ahal izan ditzaten.”

Argi eta garbi dago, gurasoek ere etxekotzea bizitzearen beharra dutela eta prozesuaren garrantzia azpimarratzen dutela. Hori horrela delarik, norabide bikoitzean proposatzen da: haiekin eta haientzat. Hau da, bi kasuetan familiaren barruko bizipenaren eta ikasgelako dinamikaren arteko trantsizio egokia lortzen lagundu nahi da (Amar, 2022).

### 4.2. Lanaren mugak eta etorkizunerako hobekuntzak

Ikerketa honen mugak aztertze aldera, aipagarria da zazpi elkarrizketatuak emakumezkoak izan direla. Hori horrela izanik, Eustat-en (2022) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako 9346 irakasleetatik, 8601 emakumezkoak dira, hots, soilik 745 gizonezko irakasle aurkitzen dira etapa horretan. Aldiz, gurasoei erreferentzia eginez, oro har gizonek gero eta gehiago parte hartzen dute haurrak zaintzeko lanetan. Gainera, haurren zaintza *aita ona* edo *aita arduratsua* izatearen definizio sozialaren parte bihurtu da. Hala eta guztiz ere, emakumeen parte-hartzea askoz handiagoa da oraindik (Rodríguez et al., 2009).

Bigarrenik, ikerketa narratiboan egin diren elkarrizketetan, konfintzazko giroa sortzea ezagutzen ez duzun pertsona batekin nekeza da. Are gehiago, norberak bere emozioen eta bizipenen inguruan erosotasunez murgiltzea edota mintzatzea ez da erraza.

Azken oztopoa berriz, laginaren tamaina muga gisa aurkezten da, soilik zazpi elkarrizketa egiteko aukera egon baita, kopuru murritza izanik. Beraz, ikerketa lan hau hobetzeko, lagin kopuru zabalago eta heterogeneoa, bai adin aldetik bai genero aldetik, aintzat izan beharko litzateke. Honekin batera, etorkizunean ikerketa-lan berrien bidea ahalbideratzeko, belaunaldi ezberdinetako guraso zein hezitzaileen ikuspegia aztertu daiteke, etxekotzeak denboran zehar izan duen aldaketa plazaratuz.

### 4.3. Lanaren ekarpena hezkuntza arloan

Hala eta guztiz ere, aipagarria da emozioetatik abiatutako ikerketa lan bat burutu dela, etxekotzea lehenengo pertsonan bizi izan duten hezitzaile eta gurasoen ahotsak bilduz. Era berean, bai irakasle eta bai gurasoen prozesuaren bizipenak batu dira eta egoerari nola aurre egiten dieten ikertu da, etxekotze kontzeptua erdigunean kokatuz. Informazioa jasotzeko tresna gisa galdetegiak erabili ez badira ere, jorratu diren elkarrizketak sakonak izan dira.

Modu honetara, egun etxekotzearen kontzeptuaren beharra agerikoa dela argitu da, ikuspegi aldaketa bat eskatzen baitu honek, prozesuan parte-hartzen duten subjektu oro bilduz. Gainera, etxekotze prozesuko harreman eraikuntza eta sortzen diren emozio anitzak plazaratzen dituen lan bat da. Hain zuzen ere, prozesuaren balorea eta gaur egun oraindik aurkitzen diren mugak azaleratzea ezinbestekoa da.

Hori gutxi balitz, ondorioetan oinarritutako infografia bat eskaintzen da (ikus 1. Irudia), etxekotzearen inguruko informazioa biltzen duena. Ondoren, eskeintzen den infografia ikastetxetan ikusgai egongo da, bai guraso eta bai hezitzaileei zuzendurik baitago.

**1. Irudia: Etxekotzearen infografia**




Iturria: berezkoa

## Erreferentziak


237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.

Acosta, D., Tablada, G., de Jesús, E., & Guevara, G. P. (2020). El período de adaptación de los niños al sistema educativo: Estrategias metodológicas para su adecuada inclusión. Editorial Tecnocientífica Americana.

Amar, V. (2022). El período de adaptación en educación infantil a un familiar: Una investigación narrativa. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación de Profesorado, 26(1)*, 493-510. https://doi.org/10.30827/profesorado.v26i1.17000

Antero, A., Balzategi, E., & Lejarraga, A. (2014). *Konfiantzaren pedagogia* [Interneteko baliabidea - Bideoa]: / Zuzendaria: Amaia Antero. Zuzendari laguntzaileak: Edurne Balzategi eta Arantxa Lejarraga. Arizmendi ikastola.

Bolívar, A., & Segovia, J. D. (2018). La investigación (auto) biográfica y narrativa en España: principales ámbitos de desarrollo en educación. *Revista Brasileira de Pesquisa (auto) biográfica, 3*(9), 796-813.

Castro, A. (2009). Familia y escuela los pilares de la educación. *Revista Innovación y experiencias educativas, 14*, 1-11.

Chase, S. E., (2015). Investigación narrativa. N. K. Denzin, & Y. Lincoln-en, *Investigación narrativa: Métodos de recolección y análisis de datos. Manual de Investigación Cualitativa Volumen IV* (oo. 58-112). Gedisa.

Congreso de los Diputados. (2023, martxoak 30). *Proyecto de Ley de Familias.* https://www.congreso.es/es/proyectos-de-ley?p_p_id=iniciativas&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&_iniciativas_mode=mostrarDetalle&_iniciativas_legislatura=XIV&_iniciativas_id=121/000151

Domingo, P. (2014). Necesidades, sentimientos e implicación parental en el periodo de adaptación [Gradu Amaierako Lana]. Universidad de Cantabria.

Euskaltzaindia (2023, Apirilak 5). Euskaltzaindiaren Hiztegia: etxekotu. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=etxekotu&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Eusko Jaurlaritza (2023). *Hezkuntza Sailak aldatu egin du unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko dekretua* (Gobernu Bilera 2023-2-28). Eusko Jaurlaritzaren Web Zerbitzua. https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2023/hezkuntza-sailak-aldatu-egin-du-unibertsitateaz-kanpoko-ikastetxeen-sarea-antolatzeko-eta-planifikatzeko-dekretua-gobernu-bilera-2023-2-28/

Eustat. (2022). *Estatistika taulak: Euskal AEko bizirik jaiotzak eta jaiotza-tasa 1.000 biztanleko, lurralde historikoaren arabera. 1975-2021.* https://www.eustat.eus/elem/ele0005700/tbl0005708_e.html

Eustat (2022). *Estatistika taulak: Euskal AEko eskolatze-tasak, sexuaren eta adinaren eta hizkuntza ereduaren arabera. 2020/21.* https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002900/ti_tasas-de-escolaridad-en-la-ca-de-euskadi-por-sexo-y-edad-segun-nivel-de-ensenanza--202021/tbl0002915_e.html

Eustat (2022). *Estatistika taulak: Euskal AEko irakasleak, sexuaren eta mailaren arabera, lurralde historikoari eta zentroaren titulartasunari jarraiki. 2020/21.* https://www.eustat.eus/elementos/tbl0000083_e.html

González, S. L. (2009). *¿Por qué es necesario el período de adaptación en la educación infantil?*. *Innovación y experiencias educativas, 9*, 1-9.

Herrán, E., Orejudo, S., Martínez de Morentin, J. I., & Ordeñana, M. (2014). Actitudes docentes y autonomía en Educación Infantil 0-2: Un estudio exploratorio en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). *Revista de Educación, 365*, 150-176

Ibañez, C. (2003). *El proyecto de Educación Infantil y su práctica en el aula.* La Muralla.

Iglesias, R. F. (2016). Acollearte: Planificación del periodo de adaptación en cuarto de educación infantil. *RELAdEI, Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5(2)*, 177-185.

Jauregizar, J. (2013). *Atxikimendua ulertzen hezkuntzaren ikuspuntutik.* Euskal Herriko Unibertsitatea.

Marín, M. P., Quintero, P. A., & Rivera, S. C. (2019). Influencia de las relaciones familiares en la primera infancia. *Poiésis, 36*, 164-183.

Moneta, M. E. (2014). Apego y pérdida: redescubriendo a John Bowlby. *Revista chilena de Pediatría, 85(3)*, 265-268.

Rivas, J. I. (2009). Narración, conocimiento y realidad: Un cambio de argumento en la investigación educativa. J. I. Rivas, & D. Herrera-ren, *Voz y educación: La narrativa como enfoque de interpretación de la realidad* (oo. 17-36). Octaedro.

Rodríguez, I. M. (2009). La importancia del periodo de adaptación en el alumnado de tres años: una experiencia práctica. *Espiral. Cuadernos del profesorado, 2(4)*, 2.

Rodríguez, M. C., Peña, J. V., & Torío, S. (2009). La experiencia de la paternidad y la maternidad: análisis del discurso de las creencias sobre la crianza y el cuidado infantil. *Infancia y aprendizaje, 32*(1), 81-95.

Pérez, F. D. (2010). El periodo de adaptación en la Educación Infantil. *Publicaciones Didácticas, 7*, 189-195.

Porta, L., & Flores, G. (2017). Investigación narrativa en educación: la expansión del valor biográfico. *Revista Del IICE, 41*, 35-46.

Sánchez, E. (2007). *El periodo de adaptación a la escuela Infantil.* Universidad de Granada.

Sánchez-López, F. & Cantero, M. (2007). Antes de ir a la escuela: ansiedad, miedos e ideas de los padres. En F. Sánchez López (Koord.), La escuela infantil: Observatorio privilegiado de las desigualdades, (oo. 13-28). Graò.

Vizcarra, M. T., López de Arana, E., & Gamito, R. (2021). Del periodo de adaptación al tiempo de acogida: una reflexión colaborativa en educación infantil. *Revista complutense de educación, 32(3)*, 487-497.

Zazu I. (2017). Del periodo de adaptación al tiempo de acogida: la construcción de un vínculo afectivo. *In-fan-cia, 161*, 9-13.

## Eranskinak

### 1. Eranskina: Kategorizazio taula

| Kategoria | Azpikategoria |
|---|---|
| Kontzeptualizazioa | Definizioa |
| | Egokitze-aldia ala etxekotzea |
| Prozesuan sortarrazten diren emozioak | |
| Lehenengo harremana gurasoekin | Antolamendua |
| | Barne bizipenak |
| Lehenengo eskola eguneko harrera | Antolamendua |
| | Barne bizipenak |
| Banantzea | |
| Agurrak | |
| Harreman afektibo berria eraikiz | Hezitzailea-haurra |
| | Hezitzailea-gurasoa |
| Haur eta familien erritmoa | |
| Etxekotzearen amaiera | |
| Familien etxekotzea | Prozesuaren beharra |
| Mugak | Ikastetxearen aldetik |
| | Familien oztopoak |
| Prozesuaren balorazioa | |

**2. Eranskina: Kategorizazio taula osatuta**

| **Kategoria** | **Azpikategoria** | **Hezitzailea 1** | **Hezitzailea 2** | **Hezitzailea 3** | **Hezitzailea 4** | **Gurasoa 1** | **Gurasoa 2** | **Gurasoa 3** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kontzeptualizazioa | Definizioa | "Beno, nik egokitzapen edo etxekotze hori, lehen hartzen zan egunan arabera eta hartzen zan 15 eguneko epe bat eta suposatzen zan hor bukatzen zala etxekotzea. Nik esango nuke ez dala jarri behar epeik. Epe hoiek dia ba igual egunerokotasunen jartzen ditugunak gurason kontziliazioako eta epe-muga bat jartzeagatikan. Baino ez nuke nik hor bukatzen dala esango. Nik ustet umea ondo ikusten deunen benetan eskolan, | "Aldaketa asko eta gauza berri asko dakarren prozesu bat da eta umearen trantsizioa arinago egitearren, lehen aipatutako emozio hoiek bereganatzea eta sentitzea dela definituko nuke." | "Beno nik prozesu oso positiboa bezela jotzen det, azkenen ikaskuntza bat izaten dalako, batez ere helduntzako, bai gurasontzako eta bai guretzako, irakasleontzako. Azkenen ikasturtetik ikasturtera ikusten deuna da ume guztik desberdinek diela eta etxekotze prozesu guztik desberdinek izaten diela, ume horien eta guraso horien arabera baita ere." | "Etxekotzea prozesue, egie da guk termino hori ez deu asko erabili orain arte, baino azkeneko urtetan bai jun gea gure arten komentatzen eta guraso bileratan batez ere, lehenengo harrera hortan azaltzen diegu ez dela haurra egokitu behar ikastetxera edo familia ikastetxera. Baizik eta gu ere irakasle bezela eta ikastetxea ere famili ezberdin bakoitzera egokitu behar geala eta ume ezberdin bakoitzera | "Prozesu zail bat, azkenen denok pasa beharra daukeuna. Uste dezuna baino leheno iristen dana, beti urruti ikusten dezu baino azkenen ailatzen dana. Eta gure kasun adibidez, hasiera baten zaile dana gero oso errex atera zan gauza bat. Eta beharrezkoa, beharrezkoa azkenen bestela umentzako eta bai gurasontzako prozesu gogorra izan daikelako eta poliki-poliki itea trantsizio hoi | "Zure ondon egotetio, pixkat ateratzen dan bidea edo. Ba azkenen, zure etxen egotetio eta ia eskolaratzen dezun hortan, zure umetxo hori ba beste norbaitekin partekatzea, laguntxokin, eta bera ere gehio irikitzea edo zabaltzea beste pertsonekiko." | "Gogorra, gogorra, baino beno gogorra izan zan. Azkenen, nere lehen haurra izatetik banatze hori, eta berak gainea hasiera baten, beno orain ondo, baino hasieran gaizki eraman zon prozesu bat izan zan eta beldur askoko prozesu bat. Beldurra eta hori, emozio askokoa." |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ordun esan dezakegula amaitu dela prozesu hoi.” | | | egokitu ein behar geala. Eta hitz hori, egokitze hitz hori, ai gea pixkana-pixkana ka aldatzen edo ordezkatzen, ze egokitzea ematen do alderdi bat ez daula berea ezertarako aldatzeko prest.” | beharrezkoa eta egokie, gustora bai.” | | |
| | Egokitze-aldia ala etxekotzea | “Nik ustet bik eiten ditugula ezta? Aurretik esan bezela, egokitzapen hori epe bat jartzen dana, dala gurason kontziliazioako eta gauden gizarte estiloako ein behar dana, epe bat jarri eta ordutegi batzuk jartzen ditugu. Eta gero, eskola-antolaket ako kontun izan | “Nik, urte asko damartzagu mundo honetan, eta egokitze prozesuarekin identifikatuago sentitzen naiz. Azkenean, egokitze bat suposatzen du prozesu honek, familientzat, haurrentzat eta guretzat, hezitzaileontzat. Hala ere, etxekotzea ez det baztertzen. | “Zalantzaik gabe, etxekotzearekin. Guk beti gainea hasieran, gurasokin eiten deu beti bilera bat pixkat prozesu hori nola izango dan argitzeko eta beti esaten dieguna da, batez ere lehentasune dala haurra eta bere erritmoa. Eta hori | “Ba nik uste det etxekotzea askoz ere egokigo erabilita daun hitze dala, dudaik ez dau kasu baten irakaslek edo ikastetxek ez baldin bado ezer-ezer aldatu behar famili eta haurren aniztasunei erantzuteko, ba gaizki goaz. Zurrun jartzen baldin bagea | “Ba etxekotzeakin igual azkenen gure prozesue hola bizi gendulako. Azkenen denok ginen parte, denok hartu beharra genitun gure ardurak, lanak edo ez dakit nola esan gure zeregin txiki batzuk eta denak izan ginen prozesu horren parte. | “Ba igual etxekotzeareki n, ba erosogo sentitzen naizelako termino horrekin.” | “Bai ba, etxekotzearekin , hori da ideala nere ustez. Danak parte hartzea eta danak egokitzea egoera horta. Ez da oso erreza baino, gaur egun daren egoerakin, baino bai horren aldekoa naiz.” |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | behar dian gauzak eukita, egokitzapen bat planteatzen da. Baino benetan ni identifikatuta etxekotze horrekin sentitzen naiz eta aldi beren, presioa daukat ze egokitzapen bat egin behar da epe horien barrun. Baino nik gehio bestea ikusten det, benetan inportantea bestea dala. Lasai, poliki, gauzak ondo egin eta esan dizuten bezela, aurrea juten dan zerbait da normalen. Baino hartu behar da bere denbora, batzutan ezin da ba gizartea hola daulako eta eskolan antolaketare | Egia da beti ere, prozesu hau ahalik eta goxoen, ziurren eramaten eta lagungarri egiten saiatzen garela umearen eta familiaren hobe beharrez.” | kontutan izan da, bigarren pausu bezela, gurasok. Batzutan, nahiz eta haurrak behar bat izan, momentu batzutan gurasok lanea jun behar duelako eta beste aukerarik ez dagoelako, gurason behar hori ere eta guraso edo famili bakoitzen egoera kontutan izan beharra dau. Ordun, guk pixka bat, binomio horrekin jokatzen deu eta gero ba gu saiatzen gea binomio horta egokitzen. Baino garbi, lehenengo umea, bigarren mailan familia edo bien artekoa, umeen | esanez ‘guk ordutegi hau daukeu eta ez badatorzkizu ondo, hor konpon’ edo ‘guk sarreran bi muxu eta agur esaten deu eta hori ein nahi ez badezu, ba agur’ ba gaizki goaz. Oso nekeza izango da ume horren etxekotzea ikastetxekin eta harreman hori seguraski desegokie izango da hasiera hasieratik, apego hori.” | Ordun, bai etxekotzea.” | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | batzutan ezin dalako eta ordun, nahasketa in behar izaten deu.” | | hobena lortzeko baino familie ere kontutan izan da.” | | | | |
| Prozesuan sortarrazten diren emozioak | | “Nik oso lasai hartu det, egie esan ilusio handikin hartu non, ume berrik ezautu eta nere alderdi hobena eman umeei eta gurasoi eta lasai-lasai. Ni poz-pozik neon esan ziatenen bi urteko gela jungo nintzala eta lasai hartu det. Beno, horrek e asko iten do, gu lasai baldin bagaude eta baldin badakizu gurasok kezkatuta egongo diala, ume batzuk negar egingo duela, tarteka | “Hasieran prozesua gogorra da. Haur eta familia bakoitzaren kontextu eta beharrak ezberdinak izaten die eta beti beraien azalean jartzen saiatzen gara prozesua ahalik eta goxoena eta arinena izateko, beti ere, segurtasun hori transmitituz eta konfidantza emanez.” | “Beno ba nik uste det, nik lasaitasunetik bizi detela, ba azkenen diskurtsoa nahiko garatuta daukeu profesional bezela, ba formazio desberdin asko ein ditugulako pixka bat garapenan ingurun eta haurran beharran ingurun eta batez ere, aldi hontan haurra nola sentitu daitekeen. [...] Ordun, oso inportantea da hor ba irakaslea edo hezitzailea | “[...] heldun behar handie eukitzen due, batez ere hasierako zaintza ikuspegiko beharrak asetzeko eta ordun izaten da tentsio izugarriko prozesue. Prozesu aberasgarrie, ona baldin eta norberan energi, norberan abilidade, norberan indarrak ondo aprobetxauta emaitzak onak baldin badie, ba aberasgarrie izaten da. | “Ba esandakoa, hasiera baten bildurrez, ba gauza berri bat zalako eta ez genikigulako baita umek nola erantzungo zon, guregan ere ze eragin izan zeiken. Eta gero umek oso ondo erantzun zon, planteauta genun denbora baino lehenago egokitu zan eta hobetu zon eskolako giroa eta denea. Eta gure aldetik oso ondo bizi genun, gainea irakaslek ere bere laguntza erakusten zigun denbora guztin, | “Ba naturaltasun guztiz eta bai, egunerokotasunen hitz egin da, normalidaden sartuta.” | “Ba lehenengo gauza nire lanai hilabetez uko ein da, egokitzapena edo etxekotzea eiteko eta dena aldaketak izan die. Ba dana, ba azkenen bai bere lana ba relebotan lan eiten du eta ni irakaslea izan da, ba dana aldatu zaigu eta hori. Ba azkenen renuntziau behar izan det nere prozesuai, ba egokitzapen edo etxekotze on bat izateko.” |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | igual ez duela nahiko etorri, guraso batek igual batzutan ez du ulertzen hezitzaile bezela egiten ditugun gauzak edo. Baino beno hori dana ia barneratuta daukagu, poliki-poliki badakigu zer dan irakasle izatea eta gauza hoiek daudela gure lanen barrun. Ordun, beno ni oso lasai eta egia esan oso ondo jun da egokitzapen hau.” | | edo umekin lanen dauna pixka bat lasai egotea, lasaitasun hori umei eta askotan behar handie izaten due familik. Ordun familikin lasai eon eta lasaitasun hori transmititzea. Azkenen konfiantza ematea, ‘oain gaizki ikusten dezu, baino lasai eon zaitez ze hau ez da betiako, iritsiko da momentu bat ondo ikusiko dezuna’, gurasoi ere konfiantza hori transmititzea. Nik nere aldetik, ikusten det lasai bizi detela prozesu hori eta beno hori transmititzen saiatzen | Baino, beti ez da norberak nahi don bezela ere ateratzen eta izaten da esfuertzo izugarrie eskatzen dun prozesue.” | segurtasune, eta oso oso gustoa eta errexa.” | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | naizela.” | | | | |
